



GOIERRITARRA

Azokaz azoka

Gabirian, Ordizian
eta Zegaman



Arg.: M. Albisu

JOXE TELLERIA, S. M. Aseguruak Korreduria



AGF UNIÓN FÉNIX

ZURE BIZITZA ETA ONDASUNAK
ONDO ASEGUARATU NAHI BADITUZU,
BADAKIZU NORA JO


88 26 43 - 88 71 55 - Faxe: 88 71 55

Erauskin Plaza, 2

BEASAIN

GOIERRITARRAren alde zozketa

ZURE AMETSETAKO BIDAIA!




200 pezeta ren truke

Errifak GOIERRITARRA n bertan ere salgai
Errifak salduaz GOIERRITARRA laguntzeko prest
bazaude, deitu 88 96 12 telefonora

Zozketa notario aurrean egingo da, 1997ko abenduaren 19an.



SARIA: 300.000 pezeta ko bidaia
(1998ko irailaren 30erarte bitako)



98

OSASUN Gida

Kontratatu zure zerbitzuen
publizitatea euskaraz.

60.000 aleko tirada
Euskal Herriko
osasun profesionalen
iragarkiekin eta osasunaren
gaineko informazioarekin.

kontrataziorako:
88 20 25

 **Egunkaria**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Aitor Arrue, Ur-
ko Irastorza, Koldo Urrestarazu,
Josune Aldabe, Gabino Murua,
Edurne Albizu, Josune Amonda-
rain, Aitziber Murua, Rufino Ira-
ola, Idurre Eskisabel eta Marian
Larrea.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Jubilazioari buruzko
jardunaldiak Ordizian**

Gipuzkoako Foru Aldun-
diko Gizartekintza sailak
antolaturik, Jubilazioari
buruzko jardunaldiak
izango dira azaroaren 18,
19, 20, 25 eta 26an, Ordi-
zian.

Jubilaturik dauden, edo
laster jubilatzekotan diren
pertsonei, edo eta beren
senditarkoei zuzenduta
daude jardunaldi hauek.
Bere helburua, jubilazioak
eta beronek dakartzkien
eragin pertsonal, sozial eta
sendikoei buruz, informa-
zio, galdekizun eta gogoe-
tak azaltzea dira.

“Zer gertatuko da gure
pentsioekin?”, “100 urte-
rarte bizi al daiteke?”,
“Noiz egin beharko nuke
testamentua?”, “Jubila-
zioa eta erretiroa, gauza

bera al dira?” bezalako
galderei erantzuten saiatu-
ko dira adituak. Jardunaldi
honetako edukinak honela
laburbil genitzake: jubila-
zioa eta bere eragina egu-
neroko bizimoduan; pen-
tsioen etorkizuna; kultur,
sozial eta kirol zerbitzuak;
eite juridiko eta legezko-
ak; eta geure osasuna
zainduz.

Arratsalde izango dira
jardunaldiak, 5.30etatik
7.30etara. Informazio
gehiagorako eta izena
emateko doaneko telefo-
noa hauxe duzue: 900 43
43 43 (deitu 9:00etatik
14:00etara). Zeure Udalet-
xean ere izango duzu in-
formazioa.

BOTA BERTSOA



Jon Lasa

Manaslu gainditua

Doinua: Habanera

Manaslu hortxe zegoen
gogo nahietatik are
Himalaia ixilean
goxo-goxo bare-bare
haruntz abiatu ziran
lotsati lau mendizale
eskua luzatu nahian
irrikiz baina suabe
denok nahi genuen hori
iritsi zaigu halare
azkenean jarri gera
munduko onenen pare
lasai esan dezakegu
ez dagoela batere
zortzimilako gailurrik
euskaldun urratsik gabe.

Ormaiztegiarrak ere
jokatu du bere baza
etzuen nahi hutsik egin
etzuen nahi txanda pasa
bazekien gainditzeko
izango zela kapaza
astiro neurtuz pausoak
eta estutuz arnasa
bere lanak eman ditu
hau etzan mendi erraza
arabar gipuzkoarrak
a ze nolako arraza
egin dezuten azaina
ez da ez izan eskasa
bejondeizuela laukote
zorionak ‘Koke’ Lasa.

*Eusko Jaularitz-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Burujabetasun Egitasmoa gizarte anitz batentzat (eta II)

Horrela euskal erakundeei esfortzu berezi bat eskatu behar zaie erakunde euskalduntze prozesuan. Goi karguetatik hasi eta azken langilerarte, euskal gizarte eleanitza bada, administrazioetik eskaintzen diren zerbitzuei dagokienean, erdaraz zein euskararen erabilpenak berdina izan behar baitu. Hala eta guztiz ere euskararen eza-gutza maila txukun bat lortzea, nagusiki, borondate politikoa-ren kontua izan daitekeen bezala, euskararen erabilpen maila, guztiz, borondate pertsonalaren kontua dela argi eta garbi esan beharra dago. Bestetik eta gainera, hizkuntzei dagokionean, alegia Euskal Herrian hitzegiten diren gaztelera zein frantsesari, eleanitzasunaren aldeko apustuak izan behar du hizkuntza hauekiko izan behar dugun jokabidearen ardatzak. Horrela hizkuntza hauek ere, euskal gizartearen hizkuntza eta espresio kultural diren heinean, beharrezkoa da, euskal hezkuntza, sistemak, euskararen eza-gutza bermatzen duen neurri berean, hizkuntza hauen eza-gutza ere bermatzea. Gizarte ereduak bezalaxe, hizkuntza ereduak ere, berau erabiltzeko orduan, gizabanako bakoitzaren askatasuna baita puntu nagusia. Horrela zenbat eta hizkuntza gehiago jakin orduan eta gizabanako askeagoa.

Maila honetan eta guztiz egin gabeko Euskal Herri horren deskribapenean bi batasun gabezi izango lirateke aipagarriak. Batetik euskalduntasunetik edo Euskal Herriaren parte sentitzeko egon daitekeen, eta gizarte bat guztiz egituratzeko beharrezkoa den, gizarte batasun gradoaren falta. Horrela euskal gizartearen batzuk euskaldun bakarrik sentitzen diren bezala, beste batzuk euskaldun eta espainiar sentitu daitezke eta beste batzuk espainiar bakarrik, konbinazioak dozenaka izan daitezkeelarik. Honen ondorio nagusia euskalduntasunaren di-

bertsifikaziotik eratortzen den gizarte batasun falta delarik. Ondorioz, aurrera begira planteatuko dugun Burujabetasun Egitasmoak aniztasun hau kontutan izanik, aniztasun honi erantzun behar dio, egitasmo honetatik egituratuko den Euskal Herria, euskal gizartearen ahalik eta sentsibilitate gehienak biltzeko eta hauek eroso sentiarazteko gai izan behar delarik. Honetarako funtsezkoa du Burujabetasun Egitasmo bera- ren egikaritzan ahalik eta gizarte sektore gehienek parte hartzea, hauek egitasmo hau beraiena ere badela, sentiarazi dezaten.

Bestetik, gizartearen batasun falta honi, lurralde batasun falta gehitu behar diogu. Euskal Herri- zat eza-gutuzten dugun erre- alitate sozio-kultural hori, egun hiru erre- alitate juridiko politiko desberdinetan baitago banatuta. EAE, NFK eta Iparraldean hain zuzen ere. Zentzu honetan, nahiz eta datorkigun gizarte berriak lurraldetasuna nabarmenki erlatibizatu, beharrezkoa izango litzateke, etorkizuneko Euskal Herria izan daitekeen gune natural hori entitate juridiko- politiko bat ematea, etorkizun batean, gaur egun banatuak ditugun hiru euskal erre- alitate juri- dikoak elkartuz, Euskal Herria bakarra osatu dezagun.

Zentzu sozio-ekonomikotik berriz, eta aurreko gutunean genion bezala, estatu erre- joak izango dira, herrien ongizate maila hobetzeko, mundu ekonomia- ren logika aprobetxatzeko unitate egokienak. Plantea- mendu hau argi eta garbi ikus dezakegu Europar Batasunaren garapenean. Horrela moneta ba- karrak, estatuen politika makro- ekonomiko bateratuek... estatu- nazioen hustunea dakarte eta ondorioz eremu ekonomiko ber- rien jaiotzea. Garbi dago be- raz, Euskal Herria bezalako gune naturalek, bai zentzu ekono- mikoan eta baita identitarioan ere, etorkizun bikaina izan de- zaketela. Baina garbi izan de- zagu, aukerak bikainak diren arren, aukerak direla eta ondo- rioz guztia egiteke dagoela. Eta

hau da Botere Egitasmo ho- nen erronka nagusia. Gune na- tural hau posibilitatuko duen botere koadroa zehaztuz, gai desberdinetan neurri propio eta bereziak hartzeko tresna izanik, euskal gizarteari, berau egitura- tuko duen ongizate egitasmo bat eskaintzea. Eta honetarako eta batez ere gazteriari dagoki- nean, Burujabetasun Egitasmo- ak, gazteriak gizartearen parte- hartzeko bideak eskaini behar ditu, gaztea, bere izaera eta pa- perarekin bat, gizartearen trasn- formatzaile bilakatu dadin.

Goierriko EGI

Mahai Nazionala epaitua, Euskal Herria erasotua!

Azken asteotan komunikabide eta, batez ere, kalean dabilen gai (petral) honekin gatoz orain ere. Hasteko, epaiketa hau, Ma- drilgo Audientzia Nazioanalean euskal militantei egiten zaiz- kien beste guztiak bezala, epai- keta erabat politikoa da. Baina hau ez da larriena baizik eta epaiketa hau inpartziala izan dela ziurtatzeko batere aukera- rik ez dagoela.

Estatu demokratiko batean biziko bagina, ez guke inon- go kezkarik izango; baina egu- nero Euskal Herriari eta euskal herritarroi dagozkigun eskubide demokratikoak zapaltzen dituen estatu hiltzaile eta torturaz- aile bat armen indarrez inposatu di- gutenez erabat kezkatu- rik gauden benetako bakearen alde lan egiten ari den koalizio politiko bakarreko zuzendaritzak izango duen etorkizunaz.

Beste alde batetik, epaiketa politiko hau, estatu espainiar eta frantziarrek Euskal Herria suntsitzeko duten apostuan ko- katzen dugu. Estrategia honen lehen pausoak aspalditik eza- gutzen ditugu eta hurrengo pau- soak oraindik ere eza- gutuko di- tugu: Herri orori dagokion au- todeterminazio eskubidearen ba- hiketa, lurralde zatiketa, de- sindustrializazioa eta euskal ekonomia- ren tertziarizazioa, intsumisio- en heriotza zibila,

euskararen aurkako erasoak, es- pañolizazioa eta yankizazioa, irakaskuntzako autoritarismo larria, 'Y' gezurrezko muntai polizial eta periodistikoa, kon- trol soziala, eraso faxistak eta gerra zikinen berpiztea...

Herri Batasunaren Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa, estatu espainiarrek eta bere mor- roei vascongadista eta navarris- tek eman duten beste pauso bat besterik ez da. Baina hala ere ez dugu gutxietsi behar; estatuek eta beren aliatuek bakea eta euskal demokraziaren ate- ari beste zerraila bat gehiago jarri diote, eta honek Euskal Herriko egoera politiko gogorra orain- dik ere gehiago makurtuko ez ote duen beldur gara.

Bide batez, estatu espainiar eta frantziarrei eta beren morroi guztiei, irtenbiderik ez duen erre- presioaren bidea utz dezate- la eskatzen diegu eta Euskal Herriaren eskubide demokrati- koetan oinarritutako benetako bakearen bidea har dezatela. Bestalde, Herri Batasuna gazte- okin egon den alderdi politiko bakarra izan dela gogoratu be- har dugu: gazte- okin alde lane- an, intsumisioaren alde aktiboki inplikatu- z, kriminalizazioaren aurka... Orain gazteoi dagokigu Herri Batasunarekin egotea, pa- satzen ari den momentu gogor hauetan.

Jarrai, gazte erakunde inde- pendentista iraultzaile- tik, alter- natiba demokratikoa zabaltzen eta eza- gutarazten jarraitzeko gure konpromezua berbaie- zta- tzen dugu, hau baita, bide argie- na Euskal Herriaren demokra- zia eta bakea eza- gut dezagun eta proiektu politiko guztiak berdintasunean egon daitezen, ezker abertzalearena barne.

Gure helburua, ezker aber- tzale osoarena, ez baita euskal demokrazia baizik eta indepen- dentzia eta sozialismoa. Horrela Euskal Herri independente eta sozialista lortu arte borrokan ja- rraituko dugu, momentu bakoit- zean dagokion tresnekin bada ere.

Goierriko Jarrai

TXANDAKA

Hemen eta gertu

Frantziako kamioilarien (eta Ipar Euskal Herrikoen) grebaz ari dira Euskal Autonomi Erkidegoko euskarazko irrati kate publikoan, Euskadi Irratian, alegia. Esataria ari da hizketan: "Frantzia jada enpresa batzuk itxi dituzte grebaren eraginagatik". "Ez dago hain urrutira, Frantziara, joan beharrik" --Erantzun dio ekonomi adituak-- "hemen, Valladoliden, Renaultek zenbait planta itxi ditu". "Beraz, hemen ere hasi gara arazoak nabaritzen", erantzun du esataria.

Gertu eta urruti. Hemen eta han. Guztiontzako esanahi bera eta garbia duten hitzak, baina hitz guztiak bezala transposoak. Valladolid dago hemen eta gertu. Eta ai Iñaki! Zeinen urrun dagoen Bordele! (Burdeos, Bordeaux). Datu objektiboak: "hemen" Euskal Herria bada, Bordele hurbilago dago Valladolid baino --150 kilometro daude Baionatik Bordelera, eta 235 Arabako Errioxatik Valladolidera--.

Baina, tamalez, euskaldun abertzale jatorrok ere galdu egiten dugu Euskal Herriaren, zazpi probintzien erreferentzia "hemen" propioaz ari garenean. Frantziara joaten gara dentistarengana, Donibane Lohizune edo Hendaiaara joan ordez. Ahaztu egiten zaigu hizkuntza bera eta historiaren pasarte komun asko ditugula --Aguirreraren dekretuak erabat ezabatu nahiko ditu, gainera--. Eta erreferentzia kulturalak: hurbilago sentitzen ditut Sarako (Lapurdi) Solagne, Katrin eta Christophe lagunak, Beasaingo beste asko baino. Hizkuntzaz gain, mundu-ikuskera paretsuak batzen gaitu --triste da, dena dela, Beasaingo lagun askok Anari kantari indartsua nor den ez jakitea, eta bai, ordea, Rosana hain ondo ezagutzea--.

Hala ere, guztia ez da hain beltz. Gaur bertan jakin dut Urruñako ikastolako gurasoek eta Goierriko ikastoletakoek --Beasain, Lazkao eta Ordiziakoek-- Urruñan elkarlanean ikastola eraikitzeke proiektua aurkeztu dutela. Batzuk behintzat badakite "hemen eta gertu" zer dagoen.

Idurre Eskisabel Larrañaga



Zer moduz bizi zara jubilatuta?

Andres Barandiaran

72 urte, jubilatua

lazkaoarra

Oso pozik. Bazterrean utzi behar da lana, bizimodua norbere kontura antolatuz eta egunerorako eginkizun bat aurkituz. Nik adibidez, egunerokoa idazten dut pasadizo eta gertaerekin. Ibili ere egiten naiz, egunean bi orduz. Lagunartea behar-beharrezkoa da.



Mari Karmen Aranburu

63 urte, jubilatua

lazkaoarra

Irakaslea izan nintzen eta lanarekin piska bat aspertuta nengoen. Gustora jubilatuta nintzen. Jubilatutakoan beste helburu batzuk zehaztu behar dira. Egutero egiten dut ordubeteko ibilalditxoak, beste harreman berriak egiteko oso egokia izaten da.



Nikolas San Juan

72 urte, jubilatua

errioxar Lazkaoratua

Oso ondo. Benidormen 15 egunez egon naiz. Paseatuz, kartetan jokatzu eta lagunekin poteatuz pasatzen dut eguna.



"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

ZINEA

LEGORRETA:

'Independence day'. Azaroak 17, Herri Zinema, 20:30etan.

'Crash'. Azaroak 24, Herri Zinema, 20:30etan.



ORDIZIA:

Gaztemaniak: fantasiako eta beldurrezko zinema maratoia. Ostirala 14: 21:00.

'Contact'. Larunbata 15: 19:30 - 22:15; igandea 16: 19:30 - 22:15; astelehena 17: 19:30.

'Jungla a jungla'. Igandea 16: 16:45.

'Air force ONE'. Ostirala 21: 22:15; igandea 23: 19:30 - 22:15; astelehena 24: 19:30.

'Liberad a Willy 3'. Igandea 23: 16:45.



GOIENIZ:

'Porco rosso'.

Azaroak 20, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

'Porco rosso'

Kurenai No Buta (Japonia, 1993)

Italian gaude, II. Mundu Gerraren aurreko urteetan, faszismoa Europa osora zabaltzen ari delarik. Marco Porcellino, 'Porco Rosso', gizarteak baztertuta eta botereak jazarria, aireko piraten eta bestelako gizatxarrez osatutako gudaostearen aurka borrokan dabil. Txerri muturdun 'Corto Maltés' hau, interesen menpe mugitzen omen da (emakumeak eta dirua, ohorearen aurretik) eta nahiago du txerri izan faszista baino.

Hayao Miyazaki (Tokyo, 1941) komikilaria ('Heidi' lan ezagunaren partaide) eta 'Cagliostro' (1979) eta 'Kiki's Delivery Service' (1989) bezalako filmen egileak, bere bosgarren animazio lana aurkezten digu, banatzaileek lotsagabeki baztertu dutena. 'Manga' japoniarren bortizkeria hutsaletik urrun, abenturaz eta gizarte kritikaz osatutako filme eder honek harrituko gaitu.

MUSIKA



ORDIZIA:

Azaroak 22, L'Arcusgi kortsikar musika taldea Herri Antzokian, 23:00etan.

Azaroak 22, Santa Zezilia Kontzertua Oroith eta Santa Ana abesbatzaren eta Beti Argi bandaren eskutik, Eliz Parrokian, 20:30etan.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 22, Rock kontzertua, Zubipe kiroldegian, 22:00etan.

ZEGAMA:

Azaroak 22, Tobera Musika Eskolak eta Orkatzek eskainitako kontzertua, San Martin Parrokian, 20:00etan.

BERTSOLARIAK

ORMAIZTEGI:

Azaroak 22, Zubipe kiroldegian, bertso-jaialdia, 22:00etan: Xabier Euzkitze, Jon Sarasua, Angel

Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabal. Gaijartzaileak: Joxerra Garzia eta Jexux Mari Mendizabal.

ANTZERKIA

ITSASONDO:

Azaroak 21, Fumantxu, Errota pelotalekuan, 22:30etan.

HITZALDIAK

ITSASONDO:

Azaroak 19, 'Droga Euskal Herrian', Askagintzaren eskutik, Erretore etxean, 20:00etan.

LAZKAO:

Azaroak 18, 'Sexu berdintasuna ikasketen aukuratarako' gaia M. Jose Molina irakaslearen eskutik, Udaletxeko Batzar-aretoan, 17:00etan, Azki emakume taldeak antolatuta.

LAZKAO:

Azaroak 19, 'Neguko solstizioa Euskal Herrian', Patxi Sanzen eskutik, Maizpiden, 21:00etan.

lues rothers
BEASAIN

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

ZEGAMA:

Azaroak 21, Euskal Herriko albokari buruzko hitzaldia, Juan Mari Beltranen eskutik, Kultur Etxean, 20:00etan.

Azaroak 25, Ginekologiako minbiziari buruzko hitzaldia, Kultur Etxean, 16:00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK



ORDIZIA:

Azaroak 19, Inurrategi anai mendizaleen azken ikusentzunezkoa, Herri Antzokian, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Azaroaren 21etik 30era bitartean, Jokin Telleria beasaindarraren pintura erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

Azaroaren 21etik aurrera, Victor Jesus pintore kubatarraren erakusketa, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:



Azaroaren 21era bitartean, Pedro Diaz Obregonen pintura erakusketa, Barrera Kultur Etxean.

Azaroaren 24tik 29ra bitartean, 'Idazkeraren lehiaketa' erakusketa, Barrera Kultur Etxean.

ZEGAMA:

Urtarrilaren 7ra bitartean, 'Buztingintzaren azarnak, Gregorio Aramen diren omenez' zeramika erakusketa, Eskola Zaharren. Informazio gehiago 16. orrian.

IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 16, Aiako haitzetara (837 m.).

Azaroak 23, Beriain-San Donatora.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 16, Lizarraga-Urbasa.

Azaroak 23, Ganbo.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 23, Arlaban-Malkorra.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Lazkaon pisua alokatzen da. 18 04 26.

☐ Ordizian Arantxa taberna traspasatzen da. Bezero ugari, erdialdean kokatua. Deitu 88 72 46 telefonora.

Salerosketak:

☐ Txuri-beltzeko telebista salgai. Prezio onean. 889814. Eguerdietan deitu: 1.00etik 2.00etara.

Lana:

☐ Esku soinuak konpon-tzen dira. Marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Arratsaldeko 5.00etatik 7.00etara, ostegunetan ezik.

☐ 2 neska euskaldun prest daude zaharrak, haurrak eta minusbaliatuak zaintzeko. Esperientziadunak. 882589.

Bestelakoak:

☐ Urriaren 22an, Zaldibiatik Ordiziarako bidean pul-terat bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu 16 18 28-ra dei dezala. Mariasun.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

Azaroak 15-16: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

22-23: Azpilikueta (Nagusia, 18 - Beasain).

Liburuaren aurkezpena

Pello Ruiz Cabestanuren 'Historia de un ciclista' liburuaren aurkezpena, Beasaingo Udal Liburutegian, 19:30etan. Antolatzailea: Kulturkide.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

AHT, Abiadura
Handiko Trenaren
Aurkako Asanblada

“Goierriin badira gudan eragin handia izango dute hainbat egitasmoa: besteak beste, herri guztietatik igaroko den Abiadura Handiko Trena (AHT), Lareon eta Ordizian egin nahi diren etxolak eta ‘gune-turistikoak’, Super-zentru komertzialak, Sasieta, zabor toxikoen biltegia Troiako meategian, Segurako bariantea, Zaldibiako urtegia, Ezkio-Itsasoko goi-tentsioko argindar linea berria, Ataun eta Zegamako ‘parke naturalak’, Aramako depuradora, terziazioa...”

Juan Karlos Ioldik, kartzelatik, astindu du gaia, ‘Aralar magalean turismo-gunea?’ izeneko artikularekin. Seinale da. Ez da gu bezala “progreso” horretaz kutsatuta egongo. Geroztik beste zenbait iritzi interesgarriren berri izan dugu, eta izango direnak...! Ataungo gune-turistikoaren proiektuaren aitzakiarekin, azter dezagun gaia, zer esana badago eta.

GOIERRIN badira gudan eragin handia izango duten hainbat egitasmoa: besteak beste, herri guztietatik igaroko den Abiadura Handiko Trena (AHT), Lareon eta Ordizian egin nahi diren etxolak eta ‘gune-turistikoak’, Super-zentru komertzialak, Sasieta, zabor toxikoen biltegia Troiako meategian, Segurako bariantea, Zaldibiako urtegia, Ezkio-Itsasoko goi-tentsioko argindar linea berria, Ataun eta Zegamako ‘parke naturalak’, Aramako depuradora, terziazioa...

GOIERRIN ez ezik, Euskal Herrian ere badira halako hainbat handinahiko proiektu gehiago: Itoiz, Guggenheim, haize-errotatzarrak, superportua, golf zelaiak, kirol kaiak, superkoartelak, kante-rak, lindanoa, Hiperrak, kan-poko produktu toxikoen hiler-ria bihurtzea, 400 km. luzerako AHT, McDonalds, hi-riak bultzatu, herri txikiak ito, nekazaritza, hizkuntza eta kultura zapaldu. Iparraldeko jendeak esperientzia handia pilatu du, hain zapal-duak izan direnez. Eskerrak euskaldun batzuk gogor-rak garenik eta ez diegun beraien planak bukatzen uzten (ez Iparraldean eta ez Hegoaldean).

ZEINTZUK DIRA ‘hauek’, aipatutako proiektu eta erasoak

Goierriren terziazioa?

Hau al da progresoa?

Ez, eskerrik asko.

bultzatzen dituztenak? Ba, lau iluminatu, hori bai, oso azkarrak, e!? Oso. Ia-ia sinistarazi digutenak ‘progresua’ hau dela, eta bai zera!, hau desaroilismo txikitzailea da! Guri, euskal herritar xumeoi, ezer onik ekarriko ez diguten istorioak.

INBERTSORE-enpresario-espekulatzaileak: sekula ez dezagula ahaztu, beraientzat bakarrik eta ahalik eta diru gehiena egiteko egiten dutela egiten dituztenak. Burokrata-politiko-teknokratak: beren poltronetan bapo eseririk, buru-nekatzaile bakoitzeko soldata gehiegizkoarekin. Adibidez: Barandi (Goieki): 500.000 pezeta hileko; Juan-bi (Ordiziako alkatea): 500.000 pezeta hileko.

ESKUALDERA berriro itzuli garenez, salatu dezagun Goieki. ‘Goierri 2005’ planean ondo asko azaltzen ditu bailararako dituen planak Goiekik: lehen sektorean, nekazaritza, abeltzantza eta hemengo produktuak desagertzen laguntzea, isil-isilik hiltzen utzi; bigarren sektorean (hau da, industrial) errekonbertsioa, informatika eta robotizazioari esker, produkzioa handitzea eta lanpostuak murriztea bilatzen da (%65etik % 35eraino galduko dira); hirugarren sektorea (garraioa, turismoa eta zerbi-

tzuak) bultzatzea du helburu (% 30etik % 60ra); badakigu zer dakarren guzti horrek: emigrazioa, lanaren prekarie-tatea, plastikozko janariak, langabezia, autopistak eta kanpokoen menpekotasuna, e.a. ekarriko du.

HAU GUZTIA IRAULI, geldiarazi behar dugu eta geure buruari galdetuko diogu zer nahi dugun, nora goazen. Beste era batera bizi daiteke, beste zenbait lekutan beste modu batera bizi dira, mantoago, euren ‘aurrerapenaren trenera’ igo gabe. Beren Mastricheko Europa herioa da.

BENETAKO EKOLOGIA ‘politikoa’ egin dezagun, ez postalekoa, autopistetako ertzak era politen ipintzeko ‘ekologia’ ez, eta ulertu eta sakondu beharra daukagu zera, alegia, ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala den oro, erabat interrelazionaturik daudela eta eragin handia dutela gure eguneroko bizimoduan. Globalki pentsatuz, lokalki jardun behar dugu.

GUZION ARTEAN eztabaidatu eta hobeto ulertu behar dugu zer prestatzen ari zaizkigun arkumez moztortutako otso hauek, eta merezi bezala erantzun behar zaie. Nola zapaltzen duten ikusi eta nola babestu ikasi.

EUSKAL HERRIA HIL nahi dute eta guk hori onartzea, gainera. Isil-isilik egiten dute lana, gezurra erabiliz, arazoak ezkutatuz. Esnatu eta antolatu gaitetzen, antolatu gabe ezer ezin baidateke egin.

POST-DATA: Gai hauek Lazkaon egin zen ‘Ekologia Goierri’ hitzaldian landu ditugu. Aurrerantzean Iparraldeko gaiari heltzeko asmoa dugu beste hitzaldi baten bidez. Hadi egon!

ERREZETA



Mari Pilar Ariztimuño
Andralizeta jatetxea
Ataun

SOLOMOA KOSTRA ERARA

Osagaiak: txerri solomoa, esnea, oreganoa, baratxuria, eta ogi mamia. **Saltsarentzat:** ilarrak, tipula eta perejila.

Solomoa esnea eta gatzarekin egosten jartzen da eltze batean. Egositakoan, solomoa esnetatik atera eta oregano eta baratxuriaz igurtzi. Beste ontzi batean, solomoa egosi den esnearekin eta ogi mamiarekin masa bat egiten da. Ondoren solomoa tartera batean ipini eta masarekin estali. Labean sartzen da gorritu arte.

Zartagi batean olio piska bat eta tipula jartzen dira. Tipula biguntzean ilarrak eta perejil piska bat botatzen da zartagian. Bost bat minutu eduki eta batidoran pasatzen da. Solomoa labetik atera eta zatiak egiten dira. Zati hauek saltsarekin estalita mahairatu.



Marian Larrea

Dekoratzaila

Aste honetan aldizkari honetako egileek hamaika bat urtez lanean ari naizen gaiari buruz hitz egiteko proposatu didate, lokal komertzialen edota etxebizitzaren, hau da, mugitzen garen barruko espazioen, barne-dekorazioaz hain zuzen. Dekorazioaren helburua bizi edo sarritan erabili behar dutenekin bat datorren giroa lortzea da, bertan bizi direnak giro honetan integratuak senti daitezen.

Helburua lortzeko hainbat urrats eduki behar dira kontuan. Lokal komertziala edo etxebizitza den, zein espazio daukagun, askotan guk erabili nahi dugun behar guztietarako txikiegia

AHOLKUA

Bakoitzaren girora egokitutako dekorazioa

gertatzen dena. Horretarako hutsuneen banaketa onarekin, espazioari etekini handiena aterako diogu.

Beste puntu bat argi naturala da, eraikuntza beraren kokapena eta orientazioak daukana, horrela erabiliko ditugun egitura eta kolore ezberdinak aztertuz. Hori guztia, oinarritu garen estiloarekin bat datozen altzari eta osagarri dekoratzaileez lagunduta.

Argi artifiziala nahi du-

gun giroa lortzeko beste elementu klabea da. Gaur egun merkatuak kasu gehietarako era guztietako luminariak daude: egongela intimitatea, egun argia sukaldean, dendetan erakusgai dauden produktuen liraintasuna eta kalitatea, bereizmena eta dizdira bixitegietan...

Hau guztiagatik gero eta gehiago pertsonalizatzen dira giroak eta emaitza hobea lortzen dira, onargarria baino gehiago den kalitatearekin.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✖ ERREFORMAK
- ✖ PROIEKTUAK
- ✖ ESZENOGRAFIA

☎ 88 58 48 - 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

HB: "Segurak trabesia nahikoa du"

Segurako saihesbidearen proiektua dela eta, Herri Batasunak zenbait datu eta iritzi eman nahi izan ditu publikoki. HB lur-ja-beekin, EHNE nekazal sindikatuarekin, dendari eta tabernariekin bildu da, "EA eta PNVk uko egin diote bide honi eta ez dute iritzirik eman, lur-ja-beekin ez dute bildu nahi. Zergatik?", galdetzen du HBk.



Saihesbidearen proiektua Maduratik bideratua dago, "proiektuak dituen akatsetan", ez du sartu nahi izan HBk. "Honekin, herriak duen nekazal-gune aberatsena erabat kaltetua gelditzen da. Industria-gune ez gara izango, nekazal-gune ere ez. Historia hutsetik bizi behar al dugu?". HBren esanetan, "Segurak kaskoko trafiko arazoa konpondu behar du eta hori oso posible da Jermanenetik sartuta Malkorren aterako litzatekeen zeharbidea edo trabesia bidez konpontzea. Segura kasko zaharrik gabe ezer gutxi da. Zer etorkizun dugu saihesbidea eginda kaskorako ezer gabe? Zer etorkizun dute kaskoko etxebizitzek eta zerbitzuek?". Horretaz gain, Madurako proiektuari dagokionean, ingurugiro-estudio seriozirik ez omen da egin. "Normak aprobaterakoan egin zen informea, ez da inondik ere nahikoa".

HBk emandako trafiko datuen (IMD) arabera, 1.400 kotxe Zegama eta Zeraina joateko pasatzen dira Seguratik; Segurara doazenak 1.250 dira, "beraz, ez da saihesbide beharrik. Etorkizunerako ez da inongo biztanleen hazkunderik ikusten, beraz trafiko datuak mailarik altuenean egon daitezke. Arazoa ez da trafikoa, baizik Kale Na-

gusian ez direla kamioiak fisikoki kabitzen".


Gauzak honela, saihesbidearen proiektua bertan behera uztea eskatzen du HBk, trabesiaren proiektuari helduz. Horrekin batera, "saihesbideari zuzendutako diru asignazioak, osorik trabesia egiteko erabiltzea; bai proiektuari dagozkionak, baita espropiazioei dagokien dirua ere". Trabesia egitea 275.000.000 inguru kostatuko da, saihesbidea egitea, 400.000.000. Beraz, trabesia egin eta gero sobratzen diren 125.000.000ak, Madalenako bidegurutzea konpontzeko, hortik Jermanenera egokitzeke, Zubiberri konpontzeko eta Malkorretik Zubiberrirainoko tartea espaloiei eta guzti egokitzeke erabiltzea eskatzen du HBk.

Bestalde, Segurako EA eta EAJren jokera salatu du HBk. "Ezkorra, kezagarria eta koldarra iruditzen zaigu. Orain arte lurjabeei bilerak ukatu dizkiete, aurpegirik ez dute eman, arazoa Diputazioak konpontzea nahi dute dirudienez. Erabakia herrian hartu behar da; orain, eta dauden datuekin eta hori defenditu dagokion lekuan. Udaletxea herriaren interesak defendatzeko dago lehenbizi". Administrazioari ahalegin berezi bat egitea eskatu eta exigitzen dio HBk.



Goierritar atxilotuak

Azaroaren 10ean, Frantziako Orleans hirian atxilotu zituen Frantziako Poliziak, Rufino eta Maria Jesus Arriaga anai-arreba ordiziarak eta Xabier Irastorza beasaindarra. Arriagatarrak 1992tik 1996ra bitartean ETAko Madril komandako kide izan ziren Madrilgo Barne Sailaren esanetan. Irastorza, berriz, ETAko Donostia komandako laguntzailea dela diote. Hain zuzen ere, Arnedoko atentua egin zuten etakideei aterpea eman izana leporatzen diote.



ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



Itziar Aranburu odolkiaren erregina

Aurtengo 'Odolkiaren erregin' berria dugu Itziar Aranburu zeraindarra. Seguran du harategia. Eta bere amak erakutsitako errezetarekin egiten ditu odolkiak. Segurako kronikan duzue xehetasun gehiago.

Gose greba

Goierriko 15 lagun astebeteko gose greba egiten hasiko dira bihar, azaroak 15, Zaldibian. Euren eskakizunak: Euskal presoaren Euskal Herriratzeara, 550 presotik 525 Euskal Herriatik kanpo baitaude; zigorraren 3/4 beteta duten 114 preso kalera-tzea; eta gaixotasun sendaezinak dituztenak kaleratzea. Bihar, Ordizian, arratsaldeko 7.00etan, aurkezpena egingo dute, trikitilari, txalapartari eta bertsolariekin. Amaiera egunean, azaroaren 22an, Zaldibiko plazan, arratsaldeko 7.00etan, beste eskualde batekoek hartuko dute gose grebaren txanda eta ondoren kotxe karabana egingo da. Asteazkenean ere ekitaldi ezberdinak egingo dituzte Goierriko herri ezberdinetan.

Juan Mari Insausti

Fresneseko (Frantzia) kartzelako presoak, Juan Mari Insausti beasaindarra tartetan, protestaldian dira, bizi-baldintzei dagozkien gutxienezko eskaerei zuzendaritzak eta epaileak kasurik

egin ez dietela eta. Ziegatik ateratzeari, kartzelan banatzen den janaria jateari, aktibitateetan parte hartzeari eta funtzionarioei frantsesez hitz egiteari uko eginez egiten ari dira protesta.

Sabotaia

Beasaingo Euskadiko Kutzaren bulegoa erasotu zuten 3 kaputxadunek azaroa-

ren 7 gauean. Suak kalte handiak eragin zituen.

Araztegia

Oria ibaiaren urak garbitzeko araztegia edo depuradora Legorretan egingo da. Foru Aldundiaren 1998ko aurrekontuetan azaltzen denez, 1.800 milioi izendatu dira lan horretarako. Teknikoek diotenez, Oria ibaiaren berreskuratzea izugarritzakoa izango da, araztegiak gain, papertegien itxiera gehitu behar baitaio.

Jose Lontxo Soroiz

Legorretako Jose Lontxo Soroizek irabazi zuen Tolo-

'Enpresa gestioa'

Goiekiko 'Enpresen Inkubategiak' antolatuta, azaroaren 20an jarriko da martxan enpresa bat martxan jartzeko behar diren betebeharrak azaltzen eta zehazten dituen 'Enpresa gestioa' ikastaroa. Negozioren bat martxan jartzeko edo sortzeko ideien bat duten goierritarrei zuzendua dago ikastaroa. Aurten hirugarren edizioa du. Eta aurreko bi urteetan, 1996an, 13 enpresa eta 31 lanpostu sortu ziren; 1997an, 16 enpresa eta 30 lanpostu. Ikastaroan parte hartu nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak, dei beza 16 18 31 telefonora, Iker Galparsorotaz galdetuz.

sako Babarrunaren Lehiaketa gastronomikoa. Iaz bere koinatak, Pili Iturbek irabazi zuen eta bere anai Jose Manuelek ere irabazi du lehiaketa bera bi aldiz.

Jesus Aranburu

Idiazabalgo gaztagileak Gernikako azokako gazta txapelketa irabazi zuen. Ordiziakoa ere berak irabazi zuen. Giza irabazleagatik 270.000 pezeta ordaindu zituen Prycak.

Izaro Iraeta

ETB-leko 'Ikusgela' saioa aurkezten hasi da Izaro Iraeta zaldibitar kazetaria.

Euskal Herriko bertsolari txapelketa

Hiru goierritar bertsolari, Euskal Herriko Bertsolari txapelketan aurrera egin eta finalurrekoetan ditugu. Iñaki Muruak eta Mikel Mendizabalek zuzenean lortu dute txartela, 730 eta 733 punturekin. Aitor Sarriegi, puntuaziaz sailkatu da, 707,5 punturekin. Finalurrekoetako saioei dago-kionez, Iñaki Murua Igorren arituko da azaroaren 23an; Mikel Mendizabal eta Aitor Sarriegi Beasainen, azaroaren 30ean. Bi saioak arratsaldeko 5.00etan izango dira, kiroldegietan.



Telleriatarrak

Igandean, azaroak 16, Telleriatarren bazkaria izango da Lierniko Mujika jatetxean. 6. aldia da lehenengo abizena Telleria dutenak elkartzeko direla. Bazkariaren aurretik, Meza izango da 12.30etan. Bazkaria 3.500 pezeta kostako da. Argazkian, iaz omendu zituzten Telleria zaharrenak: Joanita Telleria mexikarra eta Pako Telleria mutiloarra.

Goierriko eta Urruñako ikastolak bateginik

Iparraldeko Urruñako Ikastola berria eraikitzen laguntzeko kanpainaren barruan, Beasaingo, Lazkaoko eta Ordiziako ikastolek, Urruñakoarekin batera, bi jaialdi antolatu dituzte Ordizian, azaroaren 22rako eta Urruñan, 23rako. Urruñako herriko Ikastola 1995ean sortu zen, 14 haurrekin. Haur kopurua goraka doa etengabe eta eraikuntza berria egiteko proiektua martxan dago.

Laguntza eta elkartasun bide hau, Segurako Elorri eta Urruñako Hazia kultur elkarteek duela bi urtez gero antolatzen dituzten Iparr-Hegoa kultur asteen ondorioa da. Urruñako Ikastola berria egiteko, laguntza eskatu zien Goierriko ikastolei. Beasaingo, Lazkaoko eta Ordiziako ikastolek berehala erantzun zioten laguntza eskaera horri.

Belen Maiza, Lazkaoko San Benito Ikastolako zuzendariak prentsaurrekoan adierazi zuenez, "bat-batean baiezkota eman genion laguntza horri. Hain zuzen, ere ikusten dugulako, Iparraldean, gure lurraldea izanik, Euskal Herria baita, oraindik euskararen alde zer egiteko handia dagoela. Egia da Hegoaldean gauzak aspaldi hasi zirela, urte gehiago daramazkigu bide hau urratuta, 30 urte pasatxo dira Ikastolak hasi zirela. Bide luzea egin arren



Urruñan eman zuten prentsaurrekoan, ezkerretik eskubira: Belen Maiza, Lazkaoko San Benito ikastolako zuzendaria; Manu Olano, Ordiziako Jakintza ikastolako zuzendaria; Olivier Zozaia Hazia kultur elkarteak zuzendaria; Bernadette andereñoa; eta argazkian ageri ez den Aitzol Etxabe, Urruñako Ikastolako gurasoa.

oraindik zeregin handia daukagu. Beraz, garbi ikusten dugu, orain momentu honetan Iparraldean sortzen den Ikastola batek zein ibilbide luzea eta gogorra duen. Beraz gure laguntza morala eta baita bestelakoa ezinbestekoa dute Iparraldekoek". Gogoratu duenez, guztion helburuak berberak dira: "euskara kaleratzea, euskara herriari itzultzea eta euskara, nolabait, moderno bat egitea".

Laguntzera behartuak

Belen Maizaren esanetan, behartuak gaude Hegoaldeko Iparraldeari esku bat luzatzera, "helburu horretan lagunduz, euskararen ofizialtasuna nolabait egunen batean Iparraldean ere errealitate bihurtu dadin. Eta bide batez muga politikoak gaindituz, apurtuz, herri bat garelako eta herri baten adierazle zuzenena noski, hizkuntza bera da eta horren atzetik, nahiz eta guk urrats horietan urte batzuk badaramazkigun Iparraldekoekin bat egiten dugu, gurea egiten dugulako, eginkizun edo erronka hau".

Urruñako Ikastola

Bizi laburra du Urruñako Ikastolak. 1993an hainbat lagun elkartu ziren Urruñan Ikastola sortzeko asmoz. Eskola pribatua eta publikoa dituzte herrian, eta 70en bat ikasle, Hendaia eta Donibane Lohizuneko ikastoletara joaten dira. 95ean jarri zen martxan Ikastola 14 ikaslerekin. Apezetxeari esker, gela bat lortu zuten. Ikasle kopurua gehitzen ari da, eta gaur egun 24 haur dituzte. Ama eskola bakoitrik ematen dute, lehen maila egitera Hendaiako, Kanboko edo Donibane Lohizuneko ikastoletara joaten dira.

Udalarekin harremanetan daude, eta Ikastola berria egiteko lurra eta diru-laguntza eskatu dizkiote. Urte amaierarako erabakia hartua egotea espero dute.

Jaialdiak Ordizian eta Urruñan

Bi jaialdi antolatu dituzte Urruñako, Beasaingo, Lazkaoko eta Ordiziako ikastolek, eta Elorri eta Hazia kultur elkarteek. Bertan ateratzen den dirua Urruñako Ikastolarentzat izango da. Azaroaren 22an Ordizian izango da jaialdia eta 23an Urruñan.

- **Ordizian:** arratsaldeko **6.00etan** ongi-etorria egingo zaie Iparraldekoiei, Plaza Nagusian. Taloak, gaztainak, txaranga, trikitilariak eta bertsolariak izango dira. Iluntzeko **8.30etan**, afaria izango da Jakintza Ikastolan, 150-200 lagunentzat. Txartelak 2.000 pezetan daude salgai. Gaueko **11.00etan** Herri Antzokian, abeslariak eta L'Arcusgi korsikar musika taldea izango da. Bere laugarren diskoaren aurkezpena egingo du. Jexux Arza-luz, Iñaki Murua eta Mikel Mendizabal bertsolariak ere jardungo dira. Sarrerak 1.000 pezetan daude salgai.
- **Urruñan:** Arratsaldeko **4.30etan** hasita, Urruñako Ikastolako haurrak, Miren Aranburu abeslaria eta L'Arcusgi taldea izango dira Elizan. Miren Aranburu lazkaotarra da, nahiz eta gaur egun Urruñan bizi den. Ondoren, taldea eta xingarra jateko aukera izango da. Txartelak Segurako Elorripe tabernan eskura daitezke, 1.000 pezetan.

Errezil-sagarraren festa Gabirian azaroaren 23an

Azaroaren 23an izango da Gabiriako errezil-sagarren II. lehiaketa eta baserriko produktuen azoka, goizeko 10.00etatik ordu biak bitartean. Gabiriarren arteko lehiaketa da. Iaz 13 partehartzaile izan ziren. Aurten baliteke iaz baino bakarren bat gutxiago izatea. Erbie elkarteak eta Udalak antolatu dute errezil-sagarraren festa.

2. edizio hau antolatzena iaz izandako arrakastak bultzatu du Erbie elkarteak. Jende asko izan zen Gabirian eta sagar asko saldu zen. Gabino Murua antolatzailerak adierazi digunez, errezil-sagarra erosteko aukera ona da egun hau.

Lehiaketaren helburua ez da elkarren artean lehia sortzea, herriari bizi eman, jendea bildu, Gabiria azaldu, errezil-sagarra ezagutzera eman, eta saltzeko bidea egitea baizik. Horrekin batera, "gabiriarrok dauka-

Martina Arratibeli omenaldia



eta ezagutarazten egindako lanagatik omendu nahi dute.

17 urterekin hasi zen Martina lehenengo madariak eta gero sagarrak saltzen, azokaz-azoka. "Donostiako San Martin azokara joaten hasi nintzen, trenez. 77 urte ditut eta oraindik ere Beasaingo azokara joaten naiz sagarrak saltzera, asteartero". Gabiriarrak beti ezagutu ditu errezil sagarrak herrian. "Lehen baserri gehienetan sagardoa egiten zen eta horregatik izango zen hainbeste sagarrondo". Sari asko irabazitakoa da Martina. 49 kopa ditu bitrinan. Diruagatik ez omen da perira joaten, "biziogatik" baizik. "Seme-alabak ni plazan ikusita lotsatu egiten dira. Baina plazako giroa asko gustatzen zait, hango kontu batzuk jakin...". Martinak aitortu digunez, egunero 6 errezil-sagar jaten ditu, txikituta. "Erretakoak gizendu egiten omen du, gordinak ez. Bixitasun handia izaten dute. Beste sagar klaserik ez dut jaten, errezilek azukre gutxiago izaten dute eta".

guna apreziatzen hasiko gara uste dugu".

Eguraldia lagun izanez gero, herriko plazan egingo da azoka. Gainerakoan, eli-

II. edizio hone-tan, Jauregi base-rriko Martina Arratibel omendu nahi dute antolatzaileek. 60 urte daramazki Martinak errezil-sagarrak azokaz-azoka saltzen. Hainbeste urtean Gabiriko errezil-sagarra zabaltzen

za atarian edo pelotalekuan. Epaimahaia osatuko dute-nak iazkoak izango dira: Joxe Antonio Iparragirre, Ze-raingo Otatzakoa; Martin

Irazustabarrena, zaldibitarra, Gabiriako Ostaturkua; eta Antton Olaizola nekazal teknikaria. Sariak ere iazkoak: irabazlearentzat 10.000 pezeta; bigarrenarentzat 8.000 eta hirugarrenarentzat 6.000 pezeta. Erbie elkarteak, Korta, Ostatur eta Ordiziako Unanue gozotegiaren oroigarri bana ere jasoko dute.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkie lerro hauetatik Goimeni, Mendi Nekazaritzaren elkarteari, 150.000 pezetako diru-laguntza eman baitie egun honetarako.

Errezil-sagarra, oso estimatua da gure artean eta horren ondorioz oso ondo saltzen da sagar mota hau. Honen arrazoia izan liteke udazkenetik udaberriaren erdi aldera ate, eta zer esanik ez Gabon inguruan, sagar mota hori jateko dugun tradizioa, erreta dela gordinik, konpota dela, menbrilloa eta abar. Izan ere, iraupen handiko sagarra baita errezila. Hori dela eta, gabiriarren esanetan etorkizun ona du oraindik ere errezil sagarrak.



**Gabiriko
Udala**

*Udazkenean oparotasun
itzela dugu urtero
errezil-sagar festa Gabirin
Martina omendu ta gero
Udal honek gonbitea du
luzatua egunero
egun ederra, elkarturikan
suertatu dadila bero.*

*Egun ederra pasa dezazuela herritarrok
eta kanpotik zatoztenok!*

KORTA
SAGARDOTEGIA ERRETEGIA
☎ 88 71 86 **GABIRIA**

**OSTATU
JATETXEA**
OSTATU JATETXEA
9 000 000 13 20217 GABIRIA
Bazkariak Afariak
Ospakizun bereziak, bataio, jaunartze
Lagunarteko afariak
☎ 88 79 13 **GABIRIA**

Unanue
GOZOGINTZA

Nafarroa Etorb., 5 ☎ 16 22 63
BEASAIN

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
J. M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
Obradorea:
Filipinas, z/g ☎ 88 12 65
ORDIZIA

ZEGAMAKO PRODUKTUAK IKUSGAI SAN MARTIN AZOKAN, AZAROAREN 15ean

Juani Peñagarikano: "Gezurra ematen du baratzeak zenbat produktu eman ditzakeen"

Zegamako San Martin azoka herriko

baserriko produktuen erakuslekua izaten da. Tradizio handiko azoka da Zegamakoa. Bihar, azaroak 15, izango da aurtengo zita. Gozategi-barrena baserriko Juani Peñagarikano, orain bospasei urte hasi zen bere baratzeako produktuak erakusgai jartzen.

San Martin azokan artile-egileak, eskuara-egileak, ganadua, behorrak... erakusgai jartzen zirela ikusita, "Manu semeak esan zidan zergatik ez genuen jartzen postu bat, gure baratzeako produktuekin. Eta horrela hasi ginen, plazan, gure postua jartzen, orain dela bost edo sei urte".



Juani Peñagarikano beti izan du baratzea etxean. Gozatu egiten du bertan, nola hazten diren, lorea nola jaiotzen zaien... Etxean barazkijaleak dira eta asko estimatzen dute guztiek baratzean bildutako fruitua.

Gozategi-barrena baserriko baratzean barietate handia izaten dute. "Jendeak betiko gauzak jartzen ditu baratzean, porruak, azelgak... guk produktu ezberdin asko izaten ditugu. Eta askotan jendeak uste izaten du erakusketan jartzen ditudan produktu guztiak ez direla gure baratzeakoak, baina ez da horrela. Denetik gutxi egiten dut, oso bari-

tua. Etxerako egiten dugu", dio Juanik. Erakusketan hori bai, ez da produktu handienak jartzera joaten, "daukadana erakustera baizik".

Momentu honetan esaterako, eskarolak, borrajak, apioa, pepinoak, espinakak, lonbardak, azelgak, letxugak, kardua, errefauak edo rabanoak, azenarioak, porruak, piperrak, txorixero-

ak, azalorak, azak, esparagoak, berenjenak, kalabazak... "Jendea harritu egiten da eta pentsatzen du ezin dela Zegaman hainbeste barietaterik egon. Gezurra ematen du zenbat gauza eman ditzakeen baratzeak", gaineratu du.

Kakauxak ere jarri izan ditu, azukiak ere bai. "Soja bezalakoa da azukia. Gutxi egiten dut, eta gero baba-rrunak bezala jartzen ditut". Etxean barazkiak asko gustatzen zaizkie eta "horregatik jartzen dugu hainbeste barietatea".

Nekazaritza biologikoa egiten du Juanik, mineralik eta ongarririk gabe, konposta, ximaur usteldua eta ura bakarrik erabiltzen ditu.

Aurtengo eguraldia txarra izan da baratzerako. "Hezetasun handia izan da udan. Patatak, erdiak, sororan usteldu zitzaizkigun. Etxerako adina kontserbatu genuen eta hainbeste. Tipulak eta, oso txikiak izan dira. Gainera ezer fuerterik

BENITO



Harategia
Urdaitegia

S. Barbara, 8 ☎ 80 02 05
ZEGAMA

AITZKORPE

TABERNA

Egun ona pasa dezazuela opa dizuegu!

S. Martin, 15 ☎ 80 11 62
ZEGAMA

MANOLO

Edaritegia



Pintxoetan aukera haundia!

☎ 80 12 36

ZEGAMA

ZEGAMAKO KONTSUMO KOOPERATIBA-k



egun ona pasa
dezazuela opa dizue?



S. Martin, z/g

☎ 80 11 37

ZEGAMA

ez diegu bota nahi izaten, eta nahikoa lan izaten da".

Entretenimendua da baratzea Juanirentzat. "Gustatuz gero, polita da baratzea. Nola datozen ikusten da... hori apreziatu egin behar da".

Baratzaren afizioa beti izan du Juanik. Jaiotzez, Beasaingo Imitegi baserrikoa da eta han beti izan du te baratza. "Esnea saltzera jaisten ginen kalera eta esnearekin batera, barazki batzuk eramaten genituen. Etxean baratzeko afizioa denok daukagu. Barazkiak asko gustatzen zaizkigu eta alde handia dago etxeokak izanez gero. Norberak nahi duen neurrian biltzen ditu".

Sendabelarrak

Pena bat badu dena den Juanik. Sendabelarrak ere badiu baratzean, batez ere usain ona dutelako. Ez ditu gehiegi ezagutzen, ordea. Bere ama zenak erakutsi zien, "baina adin horretan ez zaio garrantziarik ematen

edo ez zaio kasurik egiten. Sendabelarren gaian ikaslea gustatuko litzaidake, nork erakutsia izango bazu", aitortu du Juanik.

Iodo belarra, salbia, bale-riana, anisetea, bruda, berbena, menta, berroa ditu besteak beste. Ukendu bat ere egiten du, erre zaurientzat egokia, "arnika, berbena, pasmo belarra, intxusa, tipula gorria, olio-birjina eta argizariarekin".

Tartukia

Barazki eta sendabelarren artean badu beste landare bat: tartukia. "Satorrak izutzeko landarea da. Usaien bat botatzen du eta alde egiten dute satorrek. Behin bat aldatuz gero, hazi botatzen du eta berriro hazten da", argitu du Juanik.

Juani Peñagarikanoren uza ikusi eta ezagutu nahi izanez gero, bihar, Zegaman izango duzu aukera, herriko plazan.



San Martin azoka, baserritarren eguna

Zegamako baserritarren eguna da biharkoa, San Martin azoka. Kanpotik ere jende asko gerturatzen da. Beraz, honako egitaraua aurkituko duzue bihar Zegaman.

10:30etan: Bailarako txistularien kalejira.

Ondoren: Herriko abereen lehiaketa: behiak, behorrak, ardiak eta bildotsak. Eta landare, fruitu, barazki erakusketa; eta artisau eta eskulangintza erakusketa.

13:00etan: Abere lehiaketaren sari-banaketa.

13:30etan: Bailarako txistularien kontzertua, Maiora plazan.

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara: Erakusketa: Xabier Azurmendiren 'Atzoko Zegama' liburuan agertzen diren zegamarren argazkien erakusketa Kultur Etxean; eta Eskola zaharrean, Gregorio Aramendiren omenez antolaturiko zeramika tradizionalaren erakusketa.

17:30etan: Buruhandi eta erraldoiekin kalejira, bailarako txistulariek alaiturik.

18:00etan: Pailazoak pelotalekuan.

23:00etatik 2:00ak arte: 'Arakama anaiak' herriko trikitilariak.

"jendeak uste izaten du erakusketan jartzen ditudan produktu guztiak ez direla gure baratzekoak"

Zegamako OSTATUA



Arrain eta mariskoetan espezializatua
☎ 80 12 99



© 80 03 10
ZEGAMA

Vendi®
EDURNE JANARIDENDA

Egun ona opa dizuegu!
☎ 80 11 40 **ZEGAMA**



ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
☎ 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Igartza Oletako kioskoa, Begue janaridenda, Montoia harategia, Erosle, Armendariz, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta Ormaiztegiko Iñaki Erosle.

GOIERRITARRA



88 96 12

'Buztingintzaren aztarnak, Gregorio Aramendiren omenez' erakusketa Zegaman

Zegamako Udalak 'Buztingintzaren aztarnak, Gregorio Aramendiren omenez' izeneko erakusketa antolatu du, gure arbasoek gizaldietan zehar erabili zituzten buztinezko tresnak, zeramika tradizionala, jendeari azaltzeko asmoz. Zegamako Eskola zaharretan kokatu da erakusketa eta urtarilaren 7ra arte egongo da zabalik.

Erakusketa honetan, erakunde eta partikular desberdinen zeramika lanak daude erakusgai. Gipuzkoako Foru Aldundiak zati garrantzitsu bat utzi die antolatzaileei, beste multzo bat Gregorio Aramendik lana egin zueneko Intxausti etxe-ko tailerrekoa da, hala nola, pedaldun tornu bat, buztina lantzeko tresnak eta bere azken garaian egindako lan sorta erakusgarri dira.

Zegamako herritarrek eta bildumagile partikularrek ere utzi dituzte buztinezko piezak. Hauei guztiei, Zegamako Udalak, eskerrak eman nahi dizkie, Gipuzkoan galtzear dagoen aintzina-ko kultura hau zabaltzen laguntzeginak.



Gregorio Aramendi, azken euskal keramika tradizional egilea

Zegamako Intxausti etxe-ko Gregorio Aramendi gazterik hasi zen buztgingintzan. 1958an utzi egin behar izan zuen plastikoak garrantzia handia hartu baitzuen garai hartan. Taxista lanean aritu zen 22 urtez, eta 1980an Kultur Sailak labe bat oparitu zion. Bera izan zen euskal zeramikari-eltegegile profesional bakarra. Debako Arte Eskolako Koldo Merino eta beste hainbat laguni, galtzear zegoen ofizioa erakutsi zien. 1994ko azaroan hil zen, 72 urterekin.

Arantzadi

Erakusketa Arantzadi Zientzia Elkartearen Etnografia sailak muntatu du. Erakusketaren zati batean zeramika tailerra berregin nahi izan da, bertan egoten diren tresna, tramankulu eta lehengaiekin. Guzti honetaz gain, guztion ulermenerako informazio taula eta mapa batzuk jarri dira, zeramikaren hastapenak eta hedakuntza azaltzeko, buztin eta labe mota desberdinak ikusteko, Penintsulan eta Euskal Herrian dauden buztgingin-

tza kokagune garrantzitsuenak azalduaz. Horrekin batera, pieza bakoitzari bere izena eta bere erabilera zehazten dituen txarteltxoak ere jarri dizkiote.

Beste ontzi multzo berezi bat ere jarri dute erakusketan, ohiko tipologiarekin zerikusirik ez duena, baina desberdintasun morfologikoak ikusteko aproposak iruditu zaizkie antolatzaileei.

Guztiak erabilera eta funtzio eredu ezberdinak

kontutan harturik sailkatuak daude, 7 taldetan guztira: ur zeramika-pegar-pitxarra; su zeramika-lapiko-tartera-elteze; neurriak; erlijio erabilerrakoak; sendakuntza erabilerakoak; abere hilketetarako erabilitako tresnak; eta eraikuntzan erabilitako tresnak.

Pedarra, mantala

Pieza hauek kronologia ezberdina badute ere, gehien-goia mende honetakoa da eta batzuk oso berriak. Gainera Euskal Herriak berezkoak dituen 2 ontzi, ere ikusgai dira. Bata 'pagarra'- 'pedarra' edo 'kantaroe' bezala ezagutua eta bestea sagardo, txakolina nahiz urarentzat erabili izan diren pitxarrak, kanpotik zuriz margoituak eta 'mantala' bezala ezagutuak.

Beraz, hau guztia ikusi eta zeramika tradizionalaz gehixeago jakin nahi izanez gero, ordutegiak hauexek dituzue: astelehenetik larunbatera: 10:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 17:00etara; igandeetan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Talde bisitak egin nahi izanez gero, aurrez Zegamako Udaletxera deitu: 80 11 15.

URBIZU

☎ 80 19 99
ZEGAMA

ROGS. 11.141462 - 14.01.462/SS



OILOTEGIA

ZEGAMA

Ekitaldi eskaintza zabala azaroan zehar

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Kultur Etxeak, Udalak, Musika Eskolak, Orkatz abesbatzak, Guraso Elkartek eta EPAk azaro guztian zehar.

Atzo hasi zen Xabier Azurmendi zenari buruzko jardunaldia, Jose Mari Otamendiren hitzaldiarekin. Gaur, azaroak 14, jarraipena izango du: 'Atzoko Zegama' Xabier Azurmendiren azken lanaren aurkezpena izango da, Luis Mari Zalduaren eskutik, Kultur

Etxean, 20:00etan. Bihar, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30etara, 'Atzoko Zegama' liburuan agertzen diren zegamar eta Zegamako zenbait tokiren argazkien erakusketa izango da Kultur Etxean. Azaroaren 23an emango zaio jardunaldiari amaiera, San Adriana egingo den mendiibilaldiarekin, goizeko 9.30etan abiatuta.

Gainerako ekintzak hauek dira:

Azaroak 21, ostirala: Euskal Herriko Albokari buruzko hitzaldia, Juan Mari Beltranen eskutik, Kultur Etxean, 20:00etan.

Azaroak 22, larunbata: Kontzertua, Tobera Musika Eskolak eta Orkatz abesbatzak eskainita, San Martin Parrokian, 20:00etan.

Azaroak 23, igandea: Herriko Antzerki Taldeak antzeztutako antzerkia, Zinean, 18:00etan.

Azaroak 25, asteartea: Ginekologiazko minbiziari

buruzko hitzaldia, Kultur Etxean, 16:00etan.

Bideo emanaldiak

Kultur Etxeko bideo emanaldien zerrenda:

Azaroak 16: 'El Jorobado de Notre-Dame'.

Azaroak 23: 'Dos tontos muy tontos'.

Edurne Albizu

ITSASONDO

Kultur Elejira datorren astean



eta 22rako.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (Uema) barruan antolatzen dira ekitaldi hauek. Hitzaldia, antzerkia, talo festa eta artisautza erakusketak izango dira besteak beste. Dena den, hona hemen egunez eguneko egitaraua.

Azaroak 19, asteazkena:

19:30etan: UEMAko bideoa

Kultur Elejira antolatu du Udalak, azaroaren 19, 21

Erretore etxean.

20:00etan: 'Droga Euskal Herrian' hitzaldia, Erretore Etxean.

Azaroak 21, ostirala:

22:30etan: 'Fumantxu' antzezlanaren Ekekei taldearen eskutik, Errota pelotalekuan.

Azaroak 22, larunbata:

18:00etatik aurrera: Talo festa eta artisautza erakusketa, Errota pelotalekuan. Herritarren eskulak: beira, soinu tresnak...



Argitarapenaren erantzukizuna

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

BEASAIN

Beasain Areto-futbol taldea



Oraindik ezezagun xamarak izan arren, nesken futbol talde federatu bat badugu herrian. Bigarren denboraldia dute aurtengoa eta maila probintzian aritzen dira beste 7 ekiporekin batera.

Taldea 16-19 urte bitarteko 9 neskek osatzen dute: Arantxa Paredes (atezaina), Izaskun Telleria, Ainara Mendoza, Enara Arratibel eta Estibaliz Ripa beasaindarrek; Izaskun Oskariz, Garazi Goia eta Naiara Goia segurarrek eta Ainara Aizpurua ataundarrak. Entrenatzailea eta taldearen ardura-dun bakarra Unai Altolagierre da, berak darama atal guztien erantzunkizuna.

Federatu bezala bi urte bakarrik eraman arren, taldearen oinarria lehenagotik dator. Alkartasuna Lizeoko taldea osatu zuten Eskolarteko txapelketan 3 urtetan, bi estreinakoetan Gipuzkoako txapeldun ateraz. Aurtengo denboraldian jokaturiko lehen 4 partiduetan, bi garai-pen eta bi porrot izan dituzte, eta ondorioz sailkapeneko erdialdean dira. Maila Autonomikora igotzeko lehen bi postuetan geratu be-

harra dute, baina entrenatzaileak dienez ez da hori taldearen helburua. *"Helburu nagusia jokatzeko da, eta ondo ibiltzea lortzen bada hobeto. Dena den, denak elkartzeko arazoak izaten ditugu, bai entrenamendu bai partiduetan. Alde horretatik dextente mugaturik gaude"*.

Diru aldetik arazorik gabe dabilta. Karteletako publizitatearekin, kamisetak salduz, Udaleko laguntzarekin eta Eskolarteko kirolean egindako lanaren bidez behar adina biltzen dute. Honela, penarik handiena ikuslego faltak ematen die, larunbat arratsalde eta igande goizetan Antzizar Kiroldegian jokatzeko dituzten partiduetara ia ikuslerik ez baita joaten. *"Oso jende gutxi joaten da. Badakigu ez garelako ezagunegiak herrian eta Kiroldegia aparte xamar gertatzen dela... Gainera, oraindik aurreritzi asko daude nesken futbola ikusteko. Zozoa dela diote batzuk, baina nire ustez egiten den ahalegina eta lortzen den maila ez dira behar bezala baloratzen. Harmailetan jende gehixeago ikustea gustatuko litzaiguke"*.

Bukatzeke bere amets edo proiektu baten berri ere eman digu Unai Altolagierrek. *"Mutilen talde federatu bat ateratzeko asmoa ere badut. Hori bai, aurrerago begira, oraindik baliabide falta baitugu. Diru gehiago lortzeko modurik badago, gustatuko litzaidake hori gauzatzea"*.

Liburua eta CD-a

Datorren astelehenetik ostiralera bitarte zabalduko da, Martin Mendizabalek idatzitako Loinazko San Martini buruzko liburua eta Beasaingo musika taldeek grabatutako CDa jasotzeko epea. Ezkiaga Auzo Etxean banatuko dira, arratsaldeko 6.30-etatik 8.00etara; bakoitzagatik 500 pezeta ordaindu eta banaketaren kontrola eramateko prestatu diren txartelak

aurkeztu beharko dira. Txartel berezi hauek, egun haue-tan etxean jasoko duzuen Udal aldizkarian datoz, norbaitek arazoren bat balu txartel hauek eskuratzeko, Udaleko Kultur Sailera jo behar du (885051).

'Gazteriko egitaraua'

Beasaingo Gazteri eta Kirol batzordeak gazte guztiei zera jakinarazi nahi die: 'Gazteriko egitaraua' osatzen ari direla eta norbaitek asmoren bat buruan badarabil, Kirol eta Gazteri teknikariarekin harremanetan jartzeko (Ander Telleria), azaroa bukatu baino lehen. Bulegoaren ordutegia: astearte, ostegun eta ostiraletan, 15:30etatik 18:30etara, Beasaingo Kiroldegian. Bertako telefonoa: 88 79 00.

Aitor Arrue

Aterpe taberna VI. pintura lehiaketa

Txomin Ferreirak 10 urte daramatza, Ezkiaga auzoan duen Aterpe tabernatik, pintura eta artea bultzatzen. Urte guzti hauetan beti izan da erakusketaren bat tabernan. Bide hone-tatik, bere garaian pintura lehiaketa bat ere sortu zuen, garrantzia lortzen joan dena eta aurtengoan 6. ediziora iritsiko dena.

Lehiaketa artista guztiei irekita dago, teknika eta gai li-breek. Lanen neurria gehienez 1x1 metrotakoa izango da eta artista bakoitzak bakar-a aurkeztu ahal izango du. Lanak abenduaren 5a baino lehenago entregatu behar dira Aterpe tabernan (88 46 66). Koadroak sinatu gabe joango dira, eta aparteko kartazal batean egilearen izen-deiturak eta telefonoa utziko dira.

Ohitura denez, diru saririk ez da izango. Lehen sailkatuak brontzezko eskultura bat jasoko du, eta gainontzeko finalis-tek plaka oroigarri bana. Baina ez pentsa horregatik artistak atzeratzen direnik. Iaz adibidez, 60 lan aurkeztu ziren; haue-tako asko Goierriz kanpokoak, Bilbo eta Donostia inguruko partaide ugariarekin. Izen bat lortu du lehiaketak, eta baita Txomin Ferreirak azaltzen digun beste ezaugarri bat: *"pin-tura munduan dabilen jendea ez da diruarengatik mugitzen, beste sentimentu batzuk dira tarteko. Nik adibidez urteak daramatzat erakusketekin, eta gustoko dudalako egiten dut, dirurik ez baitu ematen. Baina, artista gazte askok beren le-hen erakusketa hemen egiteko aukera izan dute, eta mundu honetan dabilen jendea ezagutzeko aukera ere izan dut"*.

ZALDIBIA

Udalak hainbat zertifikazioen berri eman du

Udalak 1997ko urriaren 29ko plenoan harturiko zenbait erabakiren berri emango dugu. Medikuntza kontsultako obren zertifikazioa egingo du. Sei milioi kostatu dira, gehientsuena Euskal Gobernuak subentzionatu du.

Urtsuerreka auzoko elektrifikazioa Eten enpresari eman zaio, 9 milioi pasatxoko aurrekontua du. Proiektu honen bidez Abaltzisketako lau baserri eta Zaldibiko Aizporra, Urtsubi eta Urtsutxikiri emango zaie argindarra. %90 Diputazioak subentzionatuko du eta beste %10 Zaldibia eta Abaltzisketako udalek.

Ur-hornidura

Ur-hornidurari buruzko proiektua egingo dago. Obrak egiteko enkargua Ansa enpresak hartu du bere gain. Obra hau 80 milioi kostatuko da. Ur-hartze berria CAFeko depositutik egingo da. Sarearen adar bat Saturdi aldera doa,

Igartzeta eta inguruko baserrietatik pasaturik. Beste adar bat Gorriñe gainera etorriko da. Han 500 m³ko depositu berria egingo da eta hau oraingo deposituarekin lotuko. Obraren zuzendaritza Sestra enpresari eman zaio, 5 milioi kostuarekin. Datorren udarako amaiturik izango dira lanak. Construcciones Sukia, Bilore, Goimen eta CAFen laguntza ezinbestekoa izan da obra hauek aurrera eramanez. Bestalde, 65 milioi mailera hit-

zartuko du Kutxarekin.

Gobernuz kanpoko erakundeei laguntza

Euskal Fondoko beste zenbait udalekin batera, Kubako La Habanan etxebizitzak eraikitze 4 milioi proiektu batean hartuko du parte Zaldibiko Udalak. Herriaren aportazioa 900.000 pezetakoa da.

HBren mozioa

HBren aldeko botoez eta ZUTen abstentzioarekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenari jarraiki, honako

mozio hau onartu du Udalak: "Gaur egungo gatazka egoera gainditzeko ez den bitartean Udaletxe honek 'Bakea behar dugu' leloaz ikurrinaz panel txuria jarriko du herritarrek ikus dezaten egokia den tokian".

Herri Ekimenak eskerrak emanez

Herri Ekimenak deiturik, urriaren 25ean manifestazio isila egin zen herrian, 'Ekar ditzagun Euskal Herriari' lelopean, presoan alde, 300 pertsonen parte hartu zutelarik. Hori dela eta, Herri Ekimenak eskerak luzatu nahi dizkie manifestazioan parte hartu eta ekintza horrekin atxikimendua erakutsi duten guztiei. Bestalde, positibo jozten dute izandako partaidetza.

Rufino Iraola

Arin-arin eta fandango ikastaroa

Herriko Kultura-batzordeak antolatutako, bi ikastaro hasiko dira hil honetan. Lehenengoa 'Arin-arin' eta 'Fandango' ikastaroa izango da. Parte hartu nahi dutenek hilaren 18a baino lehen eman behar dute izena Kultura Etxean. Egun horretan bilera egingo da izena emandako guztiekin, arratsaldeko 7.00etan, eguna, ordutegia, matrikularen kostua eta gaineratiko xehetasunak emateko.

Bigarren ikastaroa pintatzen ikasteko da. Ikastaro hau azaroaren 19an hasiko da eta ekainaren 17an amaituko. Asteazkenetan, arratsaldeko 7.00etatik 9.00etara izango dira klaseak. 5.400 pezeta kostatuko da matrikula. Izena Kultura Etxean eman behar da azaroaren 18a baino lehen.

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



GOITGI OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

Garbitasunak

OXEPI

☎ 88 96 67 ZALDIBIA

LAZKAO

Kultur etxeko lanentzat diru-laguntza



Urriaren 31n, Jose Antonio Dopazo, Lazkaoko PSE-EEko arduraduna eta Jorge Letamendia diputatuak, Kultur etxea egiteko datoren urtean 35 milioiko diru-laguntza izango dela adierazi zuten prentsaurrekoan. Diputazioaren diru-laguntza honi esker Udaletxe alboan egiten ari diren Kultur etxeko lanak bukatuko dituzte datorren urte bukaerarako.

Dopazoren ardurapean dagoen eskola-tailerra ari da lanak burutzen. Horretarako 48 pertsona ari dira lanean ikasle, monitore, tekniko, administratibo eta zuzendariaren artean. Letamendiak azaldu zuenez oso interesgarria da proiektu hau, Kultur etxea egiteaz gain, herriko gazteek ofizio bat ikasi eta soldata bat jasotzeko aukera baitute. Gainera, Diputazioaren laguntzaz gain, INEM-etik beste 137 milioiko laguntza jaso da.

Lanak bukatu ondoren 1999. urte hasieran azken ikutuak eman ondoren inauguratuko da Kultur etxe berria. Bertan 4 solairu izango dira: sotoa, behekoan erakusketak eta hitzaldiak egiteko lekua, lehen solairuan liburutegia, bigarrenean bilera gelak eta teilatupekoa izango ditu.

Etxebizitza sozialak

Saihesbideko bidegurutzetan egiten ari diren etxebizitza sozialak erosteko eskarientzat epea datozen egunetan zabalduko da. Horretarako Eusko Jaurlaritzak martxan jarri berria duen Etxebide zerbitzuak eman go du informazio guztia, Udaletxean izango duzue bertako telefonoa.

24 etxebizitza izango dira beraien garaje eta ganbararekin. Handienek (89 m²) 9 miloi inguru balioko dute, txikienean, berriz, (57 m²) 6 miloi inguru.



Joseba Beloki Euskadi taldera

Afizionatu mailako azkenean bi urtetan sasoi bikaina erakutsi ondoren, iritsi zaio Joseba Belokiri profesional mailan parte hartzeko aukera. Joseba orain 24 urte jaio zen Lazkaon, nahiz eta bederatzi urterekin Gasteiza joan zen bizitzera. Azken bi urteak bikainak egin ditu ACR talde nafarrean. Bi urte hauetan garaipen sonatuak lortu ditu, baina bere esanetan, ilusio gehien egin ziona, orain bi urte Lazkaoko San Prudentzio proban lortutakoa izan zen.

Esan beharrik ez dago, jarraipen berezia egingo diogula gure herritar honi, eta bere lorpenik garrantzitsuenak izango dute tokia horri hauetan.

Mendi irteera Lareo aldera

Aurreko alean aipatu bezala, Goiherriko Euskal Eskolak antolatuta, mendi irteera egin zuten perretxikuak eta gaztainak bildzeko asmoz. Egia esan jende askorik ez zen bildu, nahiz eta egural-

diak azkenik laguntzatxo bat eskeini zien. Bildu zirenak halere, aitzakia horrekin, buelta ederra eman zuten Lareo inguruetan.

Mendi irteera honen haririk aipatu behar da, gaur azaroak 14, gaztaina erreak banatuko dituztela Gerriko txokoan. Gaztaina goxoak jan nahi dituenak badaki zer egin behar duen beraz.



Montxo Quina

Montxo Quina herritarra bigarren geratu da Erroman ospatutako Munduko Wu-Shu txapelketan. Bere borrokalari guztiak irabazi ondoren finala errusiar baten aurka galdu du.

Hitzaldia

Azki emakume taldeak antolatuta, hilaren 18an, 'Sexu berdintasuna ikasketen aukeratarako' gaiari buruzko hitzaldia izango da, 17:00etan, Udaletxeko Batzararetoan. Bertan M. Jose Molina irakasleak hitz egingo du.

**Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu**



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA
**Iurre Auzoa
OLABERRIA**

ARRIETA

JATETXEA

88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

ORMAIZTEGI Lehenengo asteburuko jai egitaraua



Azaroak 21, ostirala:

17:00etan: Emakume-entzako punttu lehiaketa.

19:30etan: Txindata Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Parroki aretoan.

22:00etan: Bertso jaialdia Zubipe Kiroldegian: Xabier Euzkitze, Jon Sarasua, A.M. Peñagarikano, Iñaki Murua, Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabal. Gai-jartzaileak: Joxerra Garzia eta Jexux Mari Mendizabal.

Azaroak 22, larunbata:

11:00etan: Museoa ikustera.

12:00etan: Koadrilen bilkura eleganteen eguna ospatzeko.

12:00etan: Jubilatuen toka lehiaketa.

13:00etan: Gorriti eta bere animalien ikuskizuna herriko enparantzan.

14:30etan: Gazte bazkaria herriko enparantzan.

16:00etan: Umeentzako

'Egunkariaren pirata' ikuskizuna herriko enparantzan.

17:00etan: Jubilatuentzat igel eta bote lehiaketak.

18:30etan: Umeentzako txokolatada, guraso elkarteak antolatuta.

Gauean: Herriko gazteek antolaturiko rock kontzertua Zubipe Kiroldegian.

Azaroak 23, igandea:

10:00etatik 14:30etara: Artisauen erakusketa herriko enparantzan.

12:00etan: Voces Navarras joteroen saioa herriko enparantzan.

13:00etan: Udalak Baso-Txulo elkartearen laguntzaz eskainiriko hamaketakoa eliz atarian.

17:00etan: Eskuzko pilota jaialdia Zubipe kiroldegian.

19:30etan: Herri-kirol jaialdia Zubipe Kiroldegian: Aizkolariak: Arrospide, Larretxea, Mugerza eta Elorriaga; harrijasotzailea: Goenatxo II.

Kultur astea, giro bikainean

Urte askoren ondoren berriz ere Kultur astea antolatzeari ekin zaio, eta balorazio baikorra egin dute antolatzaileek. Astelehenetik asteazkenera bitartean gai desberdinei buruzko ikusentzunezkoak izan genituen. Ondoren ostegunean Ane Miren Uranga, Dietetikan diplomatua eta Elhuyar taldeko partaidearen hitzaldia izan genuen. Berak elikadura eta jakiei buruzko datu eta argibide erabat interesgarriak eman zituen. Hitzaldiarekiko giro ona eta jendearen partaidetza eta arreta handia azpimarratu behar dira.

Ostiral arratsaldean, berriz, Ormaiztegiko herrian giro erabat ez ohizkoa somatu genuen. Donostiatik Errealeko jokalariai gure herrira zetozela eta festa giroa nagusitu zen. Bereziki haur eta gaztetxoek festa izan bazen ere, jende helduaren partaidetza erabat baikorra izan zela esan dezakegu. Idiakez eta Aranzabal izan ziren Ormaiztegira hurbildu ziren Errealeko jokalariai. Bi ordu inguru Kiroldegi inguruan festa giroa nagusitu zen. Errealeko jokalariai benetan jarrera bikaina izan zuten bertaraturikoen galderei erantzun, sinadurak egin eta hainbat argazki ateratzeko orduan.

Larunbat egun osoan zehar herriko enparantzan giro onarekin haurrek parke ederraz gozatzeko aukera izan zuten. Ondoren igandean aurtengo Kultur asteari amaiera emango zion ekitaldi borobila ospatu zen, dantzari txiki eguna. Aspaldiko urteetan edo agian inoiz ez ziren gure herriko kaleak horrenbeste dantzariz jantziko. Aurtun lehenengo urtea izateko ospakizuna bikain atera zela esan daiteke. Goizeko 10.30ak aldera iritsi ziren Lazkaoko Oin Arin dantza taldea, Ordiziako Jakintza dantza taldea, Beasaingo Aurtzaka dantza taldea eta Gabiriako Goruntz dantza taldeko partaideak gure herrira. Ondoren herriko kaleetan zehar alaitasuna eta festa giroa jarritz bikain aritu ziren beraien dantza saioak eskainiz. Kalejira honetan partaide izan ziren Irundik hurbildu ziren Urantzu dultzainero taldea, Zegamako erraldoiak eta Ormaiztegiko trikitilariak ere.

Kalejira amaitzearekin batera Udaletxe aurrean talde guztiek batera zinta dantza, arku dantza eta agurra dantzatu zituzten. Ondoren bazkari herrikoia ospatu zen eta arratsaldean talde bakoitzak aukeraturiko dantzak eskaini zituen. Festa amaitzeko kalejira egin zen goizean irteera gune izan zen Kiroldegira arte.

Beraz, giro onez hasi eta hobeagoz amaitu zen aurtengoa. Kultur aste hau horrela ospatzea posible egin duzuen guztiei lerro hauen bitartez eskerrik beroena bidaltzen dizuegu.

Aitziber Murua

ITXUNE ERRETEGIA



Gazte giroa

- **Taberna musikala.** Ostiralero zuzeneko emanaldiak: trikitixa, rock, jazz, antzerkia, e. a.
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua 900 pzta.
- Pintxo, ogitarteko eta ifernuko txorizoa

Gabirialde, 14

☎ 88 73 51 - 88 89 92

ORMAIZTEGI

SEGURA

Azterketa arkeologikoen lehen emaitzak



Beheko panaderiko baratzean azaldu diren 3 labetako bi.

Aranzadikoek, Beheko Panaderi aurreko baratzean egindako aurreneko zundaketan edo sondeoan, forjarako erabiliko ziren 3 laberen arrastoak aurkitu dituzte. Kale Nagusira ematen duen paretaren ondoan, 10 metroko luzeera eta metro bateko zabalerako zuloa eginda, lur naturalaren nibelera, 40ren bat zentimetrora azaldu dira sutegiak. Aurkikuntzaren ezaugarriekin fitxa arkeologikoa bete eta beharrezko argazkiak atera ondoren, plastiko batez estalita, lehen zegoen bezalaxe utzi dute zulatutako lurra. 15 zundaketez gain, kaskoko etxe bakoitzaren radiografia egingo dute, noizkoa den, zer arrasto eta potentzial arkeologiko ikusten zaion jakiteko. Honen guztiak, egunen batean gauzatuko den kasko historikoaren plan espezialari informazio arkeologikoa eskainiko dio, plan hori gauzatuko dutenek kaskoan nola interbenitu jakin dezaten.

2. zundaketa Txakarran aurreko baratzean egin dute eta gainerako 13ak ere, inte-

resgarrienak izan daitezkeen kaskoko eremu libreetan egingo dituzte, etxe barruetan zulatu gabe. Baratze hauek kaleko nibeletik oso altu egoteak, azpian zerbait zegoela esan nahi du, eta laborantzarako baliagarriak izateko, hustu ordez, bete egin zituzten. Txakarranen 2 metroko zuloa egin ondoren paret bat hasi da azaltzen eta silex harriak ere azaldu dira. Hemendik, Albaitterone atzeko baratzera joko dute.

Edozein zulaketa egiteko, lur-jabeari baimena eskatuko zaio eta zerbait aurkitu ala ez, aurrez zegoen bezala utziko da zulatutako eremua.

Bariantearen inguruan

Urriaren 29an elkartu zen Udala, Diputazioko errepideetakoekin, zerkaldeko trabesiaren txostenaz zuten iritzia jakiteko. Madurako proiektua aspalditik dagoela martxan eta horretarako asignatua dagoen dirua ezin gozatzeko urbanismo edo kulturari dagokion trabesian gastatu, diote. Hala ere, Udalaren iritzia errespetatu litzateke.

Arazo administratibo hori

Aranburu Harategia saritua

Azaroaren 9an Beasaingo XIII. odolki dastaketa-lehiaketara aurkeztutako 32 harategitak, Segurako Aranburu Harategia izan zen irabazlea. Joxe Antonio Aranburuk, Rafaela Alustizak, Ixiar Aranburu euren alabak eta Mari Karmen Arrondo lehengusuak bizitza guztia daramate odolkgintzan eta gaur egun, astean 200en bat kilo egiten dituzte. Odolkiez gain, ordea, txistorra, txorixoa, tripakiak eta beste zenbait gauza ere bai betiko erara. Ikorta baserrikoek diotenez, odolkiaren sekretua, tipula ondo egostea, jenero ona erabiltzea eta guztia ondo mimatzea da.

konpon daitekeen jakiteko, Udalak Diputatu Nagusia den Roman Soduperi bilera eskatu dio. Udalar dagokionez, 2 alternatiben artean, HB izan da jarrera hartu duen bakarra (trabesiaren alde). Talde politiko honek EAJ eta EAri euren posizionamendua argitzeko eskatu die Diputatu Nagusiarekin egon aurretik.

Santa Zezilia

Musikari eta kantoreen eguna azaroaren 22an bada ere, 23an ospatuko dute herriko korukoek. 12:00etan Pedro Bilbaoren meza abestu ondoren bazkaria izango dute Imazenen. 65 urte betetako ei egin ohi zaien omenaldian Txakarraneko Joan Mari Aranzadi izango da protagonista. Joan Mari baritonotik aritzen da eta mutikotik hasi zen kantuan Julian Zunzunegi organistarekin. Koruan, 19 urte zituela sartu zen Don Bizente Aranbururekin.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Segura 3-1 Tolosaldea. **Jubenilak:** Beiraun 2-4 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 4-0 Aldapetarrak. **Infantilak:** Idiazabal 1-2 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Segura-Oiartzun, jaien, 16:00etan.

Labur labur

● Azaroaren 4an hasi ziren 14 emakumezko eta 4 gizonzko **jubilatu**en soinketa ikastaroan.

● Azaroaren 5ean, oinezkoen defentsarako **zebrabideak** margotu zituzten herriko zenbait gunetan.

● Segurako VIII. Egin **musaren** irabazleak Josune Mujika eta Joxe Mari Arrondo izan ziren.

● **Iñaxio Imaz erremontista**, Ezkurra aurrelari duela ari da erremonteko lgo mailako txapelketan. Adituen arabera bikote faboritua da.

● **Behobia-Donostia** lasterketan izan ziren herritarrik: Iñaki Telleria, Zeles Sodupe, Ramon Telleria, Mari Karmen Elorza, Egoitz Berasategi, Eñaut Telleria, Peio Agirrezabal, Salus Aranburu, M^a Angeles Mendizabal, Mikel Huerta, Xabier Lezeta eta Aitor Ugaldede.

● Partzoneriko **koto sozialean lan egiteko** 7 lagun kontratatuko dira. Ezinbestekoa partzoneriko herriren batekoa izatea. Izen ematea, azaroaren 14rako partzoneriko Udaletxeetan.

● GOIERRITARRAKEN 123. alean **elizako erlojuari buruzko informazioa** ikusita, urriaren 30ean ETBkoak izan ziren grabatzen. Azaroaren 14an omen dira ematekoak "Aire aire" saioan.

● Azaroaren 16an, 6. aldiz elkartuko dira **Telleriarrak**. Informazioa 11. Orrialdean.

● **Kirol eskolarra:** Krosko txapelketa azaroaren 16an hasiko da Irunen.

● Azaroaren 29an izango da 6. **inutilen afaria**. Izen ematea tabernetan dauden orrietan.

Joseba Telleria

ORDIZIA

Fantasiatzko eta beldurrezko zine maratona

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kultur Patronatuak Ordiziako Udalaren laguntzaz, fantasiatzko eta beldurrezko zinema maratona antolatu dute. Ekitaldia ostiral honetan, hilak 14ean izango da Herri Antzokian iluntzeko 9etatik aurrera. Bertan 6 filma ikusteko aukera izango da, 3 laburmetraia eta beste hainbat luzemetraia hain zuzen. Aipatu emanaldi guztiak, bat izan ezik, jatorrizko bertsioan izango direla gaztelaniazko azpiztituluekin.

Esan bezala, gaueko 9etatik aurrera ikus daitezke filma hauek. Laburmetraien artean honakook: Guido Manuliren 'Casting' (1996), jatorrizko bertsioa ingelesez eta euskarazko azpiztituluekin; Pedro L. Barberoren 'Arañazos' (1997), gazteleraz eta azkenik Asier Altuna eta Telmo Esnalesen 'Txotx' (1997), euskaraz eta gaztelerazko azpiztituluekin. Azken hau sagardotegi batean girotutako laburmetraia interesagarria da.

Luzemetraiak, berriz, besteok: Daniel Lee-ren 'The black masc' (1996), gaztelerazko azpiztituluekin; Michele Soavi-ren 'Mi novia es un zombi' (1996), gazteleraz eta amaitzeko Peter Svater-en 'Hemoglobin' (1996), ingelesez.

Ostiral gau atsegina pasatzeko aukera ezin hobea,



enparantzan. Berau, zalantzarik gabe, upategi desberdinetakoko ardoen dastaketa izango da. 20ren bat ardogilek bere stand-a izango dute Enparantza Nagusian bertaratzen diren guztiei beren ardoak eskeintzeko asmoz. Aurtengoak bosgarren edizioa beteko du eta esan herritarren aldetik erantzun ona izaten duen ekitaldia dela, jende ugari biltzen baita larunbat arratsalde eta igande eguerdian, upategi desberdinetakoko ardoak dastatu asmoz.

beraz, Herri Antzokian, zinezale zareten eta ez zareten guztientzat ere.

Zinemaldia

Hitzaro Euskara Elkarteak urteroko ohiturari jarraituz, bideo emanaldiak antolatu ditu euskaraz. Aurtengoan ere batez ere umeei zuzendutako izango dira prestaturiko lau saioak. Lehendabizikoa aurreko larunbatean izan zen eta esan 'Eduenezuri eta zazpi ipotxak' filmak Barrenako ikus-aretoa 3-8 urte bitarteko haurrez betetzea lortu zuela. Gai nontzeko hiru saioek ere arrakasta bera izango dute-lakoan daude Hitzarokoak.

Ardoaren astea

Ale hau kale-ratzerako hainbat ekitaldi burututa egongo diren arren, aurtengo ardoaren astearen ekitaldi gorenena asteburu honetan burutuko da herriko

Larunbat honetarako 'Bagdadeko lapurra' iragarrita dago Barrenan arratsaldeko 5:00etatik aurrera. Pelikula hau 6 eta 10 urte artekoentzat gomendatua dago. Azaroaren 22rako, berriz, 'Herensugea eta hartza' bideoa eskeiniko dute eta azkenik, zikloari amaiera emateko 'Gremlins' filmetako lehen lana emango dute azaroaren 29an. Gogoratu sarrera 100 pezeta. besterik ez dela kostako.

Asto Kaleko festak

Enparantza Nagusian ardoa probatzeko aukera izango den bitartean, inguruan, Elkano kalean hain zuzen, festak ospatuko dituzte. As-

to kalea bezala ezagunagoa den honetan jaiotakoek afa-ri goxoaz dastatzeko aukera izango dute, gaur ostirala Siglo XX tabernan. Ondoren, eta ohiturari jarraituz, mus txapelketa azkarra izango da.

Baina egunik handiena, dudarik gabe, larunbatekoa izango da. Izan ere, betiko ekintzez gain XVI. Asto Lasterketa jokatu da egun honetan, ikuskizun handia sortzen duen proba. Iazkoan emakumezkoak izan genituen protagonista. Ia aurtengizonezkoak ere astoari belarrietatik heldu eta parte hartzera animatzen diren. Umora ona ez da faltako behintzat.

Musikaz blai

Santa Zezilia eguna bertan dugula eta, lehendabizikoa aldiz herriko 3 musika taldeek, Beti Argi banda eta Santa Ana eta Oroith abesbatzak, elkarrekin batera jotzeko erronka hartu dute hain egun seinalatuan. Azaroaren 22an, beraz, eliz parrokian musika banda eta abesbatzak elkartuko dira betiko abesti ezagunak jotzeko. 80 lagunetik gora izango dira eta, beraz, aurretiko entseiuak funtsezkoak izango dira egun horretan gauzak ondo irtetzeko. Zuzendaritza lanak Ana Lekuonak egingo ditu.

Aitor Calvillo

ZABALE
OKINDEGIA
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuaeren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Mairidireak - Mahai oihalak
Toailak - Gortinak eta osagaiak

M. Zeberio J. M. Barandiaran Plaza
☎ 88 00 84 ORDIZIA

ATAUN

Jentilak herrian



Jentilaren etorrerak garrantzi haundia hartu du, eta Udalak argitaratutako postaletan ere ageri da.

Azken urteotako tradizioari eutsiz, jentilak izan genituen bisitan joandako igandean herriko behe parte honetan. Jentilbaratza eta inguruko mendietatik jaitsi zitzaizkigun, larruzko jantziak soinean eta zuziak sutan eskuetan. Iztatorren kristau herria zegoen haien zain, harrera egiteko prest: erretorea, medikua, eskribaua, alkatea eta herri xehea bera. Elkar agurtu ondoren, jentilak eta kristauak, denak ataundarrak, plaza ingururaino hurbildu ziren elkarrekin. Han nahiko arazo eta gorabehera izan zuten batzuek eta besteei: jentilen

buru Mikelats ondoezak jota zebilen, sorginak begizkoa botata; kristauen artean ere gauzak ez zeuden batere lasai: apaizak alkate izan nahi, baina alkateak ere bai, berean jarraitu nahi, alegia. Sorgina, berriz, inguruak nahasten eta denak zirikatzen ibili zen, beti bezala; Samartintxiki Etsairi edari majikoa kendu nahian...

'Jentilen etorrera' izeneko antzespenean gertatutakoak ziren horiek guztiak. Antzespene hau San Martin festen barruan ekintza garrantzitsuena dela esan daiteke, herrikan kanpo fama

hartu duena. Antzespene honen bitartez, Joxemiel Barandiaran zenak jaso zituen hainbat eta hainbat istorio, kontakizun eta esaunda zahar herritarrei eta bertara hurbiltzen direnei agertzen zaizkie, ezagutu, gogoan hartu eta gorde ditzagun.

Urtero ezberdina izan ohi da kontatutako istorioa. Aurtengo ordea, ez da bakarrik istorioa aldatu, antzestekua ere berria izan baitugu: plaza berri, hain zuzen.

Festen balantzea

Festen inguruko ekintzekin jarraituz, aipatzeko beste berririk ere badaukagu:

Azaroaren 2an ospatutako 3 Auzotako Korrikaldian, 110 lagunek hartu zuten parte gutxi gorabehera, 12 ataundar horien artean. Irabazlea, Santi Gonzalez beasaindarra izan zen gizonetako eta emakumetakoetan, Mari Carmen García arrasatearra. Lehen bi herritarrek, Xabier Urdangarin (34. postuan) eta Aitor Goikoetxea (35.ean), elkarrekin iritsi ziren. Emakumetakoetan, berriz, Pili

Albisu (91.a) izan zen bertakoen artean lehenengoa eta guztira, hirugarren emakumetako. Beste ataundarrak postu hauetan sartu ziren: Asier Auzmendi (44.a), Garikoitz Mendizabal (50.a), Koldo Aldabe (53.a), Joxe Arrondo (59.a), Juan Arrondo (60.a), Josu Olano (70.a), Jon Aizpurua (77.a) eta Iñaki Imaz (101.a). Agurtzane Auzmendik min hartu zuen eta erretiratu beharrean gertatu zen.

Azaroaren 7an, ostiralean, ospatutako bertso jaialdian ere uste baino jende gehiago izan zen (350 pertsona inguru) eta haurren eguneko ekintzetan, era berean, jende askok hartu zuen parte.

Heriotza

Hil berri zaigu Aian Migel Arratibel Dorronsoro, Joana-enea baserrikoa. Bere senideekin bat egiten dugu euren nahigabearen.

Josune Aldabe

OLABERRIA

Lehenengo kart txapelketa

Azaroaren 9an jokatu zen Karting-ean lehenengo kart txapelketa nagusia: El Diario Vasco saria. Gaztetxeoen sailean, Xabier Lujua izan zen irabazlea. Bigarren eta hirugarrenak, Xabier Puigdelivol eta Miguel Molina.

Nagusien sailean, Kataluniako txapelduna den Jordi Surrallés eta Espainiako txapelduna den Santiago

Porteirosen partehartzea izan zen. Irabazlea, dena den, Gerard Battalla izan zen, Santiago Porteirosen atzetik. Surrallés utzi egin zuen lasterketa.

Hirugarren proban Harriet Arruabarrena nagusitu zen, Paul Vilches eta Migel Angel Tajadaren atzetik.

Sari-banaketa

Santu Guztien egunean egin zen IV. Argazki Rallyaren sari-banaketa. Irabazle nagusia, Ruben Sanchez ordiziarra izan zen, 99 puntuekin. Bigarrena Juan Joxe Agirre azpeitiarra izan zen 94 puntuekin eta hirugarrena, Migelito Sarralle azpeitiarra, 87rekin. Akzesitak ere banatu ziren: Jose Antonio Quiros beasaindarri,

Antonio Valencia donostiarrari eta Simon Arrigain hondarribitarrari.

Dena den, herritarren artean ere izan sariturik. Montse Martinezek jaso zuen herritarren arteko argazki onenaren saria. Aranguren Txiki baserria ere saritua izan zen. Bera izan baitzen, partehartzaileen argazkietan gehiena azaldu zen irudia.

IDIAZABAL



Kale Nagusiak itxura berria izango du denbora gutxi barru. Kotxeen abiadura mu-
rrizteko duela hiru urte ja-
rritako koskak kendu egin
dituzte. Orain egiten ari di-
ren lanak bukatutakoan
kosken artean oinezkoen-

tzat zeuden pasabideak go-
rriz eta txuriz margotuko di-
tuzte eta kale Nagusia kos-
karik gabe geratuko da.

Udaletik jakinarazi de-
nez hiru izan dira lan hauek
egiteko arrazoiak. Bata,
hotsak, kamioiek kosketatik

Kale Nagusiko lanak

pasatzerakoan hots handia
egiten zuten. Bigarren arra-
zoia: zikinkeria. Kamioi as-
kori (obretan eta mendian
ibiltzen direnak...) erruede-
tan pilatutako zikinkeria
kosketan hartutako kolpea-
rekin erori egiten zitzairen
eta Kale Nagusian geratzen
ziren lokatza eta bestelako-
ak. Kosketako adokinatuen
egoera izan da azken arra-
zoia, adokinen artean zirriz-
tu ugari zegoen eta hoiek
arriskutsuak ziren batez ere
bizikletazaleentzat.

Koskak hiru urte egin di-
tuzte jarrita, Udalaren ustez
denbora horretan bete dute
beraien eginbeharra, kotxe-
en abiadura asko gutxitu de-
lako. Hori dela eta hemen-
dik aurrera Udalak jakinara-

zi du koskak kentzearekin
batera abiadura kontrolatze-
ko beste neurri batzuk har-
tuko direla, besteak beste
Ertzaintzak gertutik zaindu-
ko du kotxeen abiada.

Etxebizitza berriak


Udalak urriko plenoan Zi-
gor auzoko arau subsidia-
rioen aldaketa onartu zuen.
Hori dela eta Guardi Gain
S.A. promotorak 15 etxebi-
zitza berri eraikiko ditu Zi-
gorreko terrenoetan.

Proiektu horretan intere-
sa duten guztiek udaletxean
eman behar dute izena hila-
betea bukatu aurretik. On-
doren, Udalak bilera egingo
du izena emandakoekin.

Xabier Urteaga

LEGORRETA

Gozogintza ikastaroan izena emateko epea luzatu egin da



Udaleko Kultur-batzordeak
Gozogintza ikastaroa anto-
latu du, Kutxa Fundazioa
eta Bilkoin K.K.E.-ren la-
gutzarekin.

Ikastaro honetako plaza
kopurua mugatua zen (8-

15) eta izena 7
ikaslek baka-
rrik eman du-
tenez, matri-
kula epea aza-
roaren 20ra
bitarte luzatu-
ko da. Gaine-
rako baldin-
tzak berdinak
dira: Ikastaroa
astelehen eta
asteazkenetan
izango da
arratsaldeko
3.00etatik
5.30etara.

Ikastaroaren
iraupen osoa 30 ordukoa
izango da. Azaroaren 24an
hasiko da Bilkoin elkarte-
an. Ikastaroan zehar bizko-
txoak, kremak, pastak, opi-
lak, errege-uztaiak, e.a.
egingo dira. Ikastaroa

amaitu ondoren idatzizko
dokumentazioa banatuko
da.

Matrikularen kostua
2.500 pezetakoa izango da
eta Udal bulegoetan izena
ematerakoan ordainduak
izan behar dute.

Koadrilen arteko futbol txapelketa

Hil honen 8an eman zi-
tzaion hasiera Bilkoin el-
karteak urtero antolatu ohi
duen Koadrilen arteko fut-
bol txapelketari. Bertan 11
taldek hartuko dute parte
eta ligaska moduko lehen
fase bat jokatu beharko du-
te. Honako hauek dira tx-
apelketan izena eman duten
taldeak: Jan da Lo A, Jan
da Lo Z, Batimbora A, Ba-
timbora B, Ezereza, Dane-

tik, Izkilimili, Baldarrak,
Jun da Jakin, Eta Abar eta
Gautxoriak.

Partiduak larunbat arra-
tsaldez eta igande goizetan
jokatuko dira Ugara herri-
eskolako kirol gunean.
Txapelketako final egune-
an bazkari eder bat dasta-
tzeko aukera izango dute
Bilkoin elkarteak.

Zinea

Datozen bi astelehenetan
honako bi filme hauek
izango dira ikusgai, beti be-
zala, Herri Zineman, arra-
tsaldeko 8.30etan.

Azaroak 17: 'Indepen-
dence Day'.

Azaroak 24: 'Crash'.

Josune Amondarain



1976ko Alkartasuna Lizeoko ikasleak

Ihauteri garaian aterako argazkia da honakoa. 1976. urtean Beasainen jaioetakoak dira.

Goian: Ibon Altuna, Igor Auzmendi, Ander Garmendia, Koro Munduate (andereñoa) eta Imanol Imaz.

2. ilaran: Zezilia Herrador, Amaia Olano, Aitziber Lizarazu, Iban De la Fuente eta Loinaz Egurtza.

3. ilaran: Beatriz Barona, Leire Zumarraga, Maider Arrondo, Iker Telleria eta Nere Mujika.

Beheran: Igor Auzmendi, Iker Ojanguren, Idoia Cuellar, Hasier, Jaione Fernandez eta Aimar Jauregi.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN



☎ 88 55 00 ORDIZIA

URBITARTE
sagardotegia



Erreserba telefonoa
18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babezteko gaudu*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).


NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

BUZTINGINTZAREN AZTARNAK, GREGORIO ARTAMENDIEN OMENIEZ ZEGAMATN



**Asteazken zehar taldeak
ikusi nahi izanez gero,
aurrez deitu
80 11 15 edo 80 13 51
telefonoetara.**

**Asteburutan zabalik
egongo da**

**Larunbatean: 10etatik 12etara
2etatik 5etara**

**Igandean: 10etatik 2etara
4etatik 7etara**



**Zegamako
Udala**

Azaroak
12-tik 22-ra

Bi- gatik hiru

3

Eraman

2

erosi



txokolatez beteriko
PRICIPE Gailetak
180 gr.

unitatea

87

BARNEAN BILA ITZAZU
**Super
Prezioak**
BARNEAN BILA ITZAZU

PRYCA